

XEDAPEN OROKORRAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1929

7/2012 LEGEA, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak apirilaren 23ko 7/2102 Legea, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Europar Batasuna eratzeko itunetan bermaturik dago salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen joan-etorri askea barne-mugarik gabeko eremuan, hau da, barne-merkatuan.

Lisboako estrategiaren itzalpean, 2006ko abenduaren 12an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Direktiba onartu zen, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, edo, aurrerantzean, Zerbitzuen Direktiba, urte horretan bertan, abenduaren 28an, indarrean sartu zena. Barruko zerbitzu-merkatuak esan nahi du Batasuneko estatu bateko pertsona fisikoek eta juridikoek ez dutela eragozpenik Batasuneko beste estatu bateko lurraldean kokatzeko, eta esan nahi du, orobat, zerbitzuak emateko askatasuna ere badagoela, eman behar diren estatu kidean kokatu beharrik gabe.

Direktiba hori derrigor aplikatu beharrekoa da, Erkidegoko Zuzenbide eratorria baita, baina ez hori bakarrik. Zerbitzuen arloak oso garrantzi handia du Erkidegoko ekonomian, eta direktiba horri esker, aukera paregabea dago arloa bera goitik behera berritzeko; hau da, arlo horrek Europan duen eman-ahala trabarik gabe garatu ahal izateko berebiziko tresna da.

Zerbitzuen Direktibaren helburua Europar Batasunean benetako zerbitzu-merkatu bakarra iristea da, arau-esparru gardena, kontraesanik gabea eratzuz. Era berean, esparru horrek norabide jakin bat izan behar du: ekonomiaren jarduera bera; estatu kideetan eragozpenik gabe kokatzea eta eragozpenik gabe ematea zerbitzuak; oztopo zentzugabeak edo neurrigabeak bidetik kentzea; prozedurak erraztea eta, azken batean, Batasuneko estatuen artean elkarrenganako konfiantza sustatzea eta barruko merkatuan zerbitzuak ematen eta kontsumitzen dituztenen konfiantza sustatzea.

Zerbitzuak aske ematea dela-eta, direktibak dio legezko eta administrazio-arloko alferreko trabak bertatik kendu behar direla, hau da, beharrik gabe, neurri gabe edo bazterkeriaz –horiek baitira bete beharreko irizpideak– Batasuneko estatuetan kokatzeko eta zerbitzuak emateko askatasunak oztopatu edo mugatzen dituzten trabak eraitsi behar direla. Eta prozeduraren batek irizpide horiek betetzen baditu, eta direktibaren arabera ere beharrezkoa baldin bada premiazkoa delako edo denon onerako delako, bi aukera izango dira: prozedurak agintzen dituen izapideak eta eskakizunak erraztu, edo ordezeko beste aukeraren bat aurkitu, zerbitzuak emate hori hain gauza gaitza izan ez dadin.

Baina Zerbitzuen Direktibak baditu beste helburu garrantzitsu batzuk ere, esate baterako: administrazio-bidea erraztea, prozedurak eta izapideak elektronikoki eginaraziz eta halakoetarako

2012ko apirilaren 30a, astelehena

«leihatila bakarrik» zabalduz; kontsumitzaileek zerbitzu-erabiltzaile gisa dituzten eskubideak indartzea eta zerbitzu horien kalitatea bermatzea; eta Batasuneko estatuak administrazio-arloan bata besteari eraginkortasunez laguntzea, bai estatuaren artean, bai eskualdeen artean bai eta herrien artean ere.

Estatua hasi da direktiba hori Espainiako ordenamendu juridikora biltzeko lana egiten. Horretarako idatzi du oinarritzko lege bat, azaroaren 23ko 17/2009 Legea, Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzkoa. Bertan, Zerbitzuen Direktibaren printzipio orokorrak jasotzeaz batera, autonomia-erkidegoetako araudiak egokitzen hasteko irizpide erkideak ere zehaztu dira. Legeak asmo handiko ikuspegia hartzen du, eta printzipio horiek aplikatu daitezkeen sustatzen du, zerbitzu-sektorea arautzeko esparrua hobetzeko eta, hartara, irabaziak izateko sektore horietako eraginkortasunean, produktibitatean eta enpleguan, bai eta herritarrei eta enpresei zerbitzu mota gehiago emateko eta zerbitzu horien kalitatea hobetzeko ere.

Beraz, azaroaren 23ko 17/2009 Legeak, Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzkoak, finkatu egiten ditu kokatzeko eta zerbitzuak aske emateko oinarritzko askatasunekin bateragarriak diren arauketa-printzipioak eta, era berean, zerbitzu-jardueretan sartzea eta aritzea arrazoirik gabe mugatzen duten oztopoak kentzeko eta trabak murrizteko aukera ematen du. Bereziki, legeak azpimarratzen du administrazio publikoek sektore honetan parte hartzeko dituzten tresnak zehatz-mehatz aztertu behar direla, eta honako printzipio hauek hartu behar direla aintzat: ez diskriminatzeko printzipioa, interes orokorreko arrazoi saihestezinak daudelako justifikazio-printzipioa eta arrazoi horiek kontuan hartzeko proportzionaltasun-printzipioa. Beste alde batetik, prozedurak sinplifikatu egin behar direla esaten du, alferrikako luzapenik gerta ez dadin, eta zerbitzuak ematen dituztenei karga administratiboak arin dakizkien. Horretaz gain, zerbitzuen erabiltzaileen eta kontsumitzaileen bermeak indartu egiten dira, zerbitzu-emaeleak garbi-garbi jokatzera behartuta daudelako, bai eman behar duten informazioari dagokionez, baita erreklamazioei dagokienez ere.

Eta transposizio-lan hori amaitzeko, Estatuaren Administrazioak 25/2009 Legea idatzi du, abenduaren 22koa, Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena. Lege horren bitartez, Zerbitzuen Direktibako xedapenen eraginpean dauden estatu-lege batzuk aldatzen dira.

Arau horietan aginduta datozen irizpide orokorrak, osotasunean ulerturik, proposatu diren lau helburuetako bakoitzean aplikatzen dira. Lehen-lehenik, aurretiazko baimenen beharra bertatik kentzea eta, beharrezkoa denetan, ordezkari modura, gerora egin beharreko jakinarazpenak edo adierazpenak erabiltzea, agintari eskudunek jarraipena egin ahal izan dezaten. Jakinarazpen edo adierazpen horietan, dena delako zerbitzua ematen duen pertsonak edo enpresak bere gain hartuko du bere jarduerak zuzen funtzionatzeko beharrezko baldintzak betetzeko ardura. Zerbitzuak aske eman ahal izateko baldintzaren bat betearazteko, arrazoiak fundamentuzkoa izan beharko du, neurritzkoa, eta ezingo du inor nazionalitatearen edo sozietate-helbidearen kariatzaz baztertu. Fundamentuzko arrazoi horiek izan daitezke osasun publikoak, ingurumena zaindu beharrik edo ordena publikoak edo segurtasun publikoak eragindakoak.

Bigarrenik, administrazio-lanak sinpletze horretan aurrera egitea, alferreko tramite guztiak eraitsiz, eta, aukeran, herritarrei gaitzik txikiena eragiten dieten bideak hartuz, esate baterako, tramitazioak telematikaz edo urrunetik egiteko aukera erraztuz. Horretarako, leihatila bakar bat zabalduko da, eta bertan egin ahal izango dira, arin-arin, zerbitzu-jarduerak Europako edozein herrialdean garatzeko beharrezko diren administrazio-tramite guztiak –Europakoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak eta tokian tokikoak–.

Hirugarrenik, kontsumitzaileen eskubideak eta bermeak indartzea, zerbitzua ematen duen enpresari edo pertsonari buruz eta zerbitzuei buruz ere informazio gehiago eman beharra izango delako.

Eta azkenik, Espainiako agintariek eta Batasuneko gainerako estatuetaoek, aurrerantzean, lankidetzan aritzeko tresna sendoagoak izango dituzte. Europar Batasuneko herrialde guztietako administrazioek dute beren lurraldean kokaturik dituzten zerbitzuen emaitzen gaineko informaziorako, kontrolerako, ikuskaritzarako eta ikerketetarako lankidetzan aritzeko betebeharra, eta Europako Batzordeari ere lagundu behar diote eginkizun horretan.

Bada, batetik, 2006/123/EE Direktiba dago, bestetik Estatuak direktiba hori bere baitara biltzeko idatzi duen oinarritzko legedia, eta orain Euskal Autonomia Erkidegoak lege-mailako bere arauak haien arabera egokitzeko hartu beharreko neurriak hartu behar ditu. Horretarako egin da lege hau. Baliteke, gainera, tartean diren jarduera batzuetan Autonomia Erkidegoak eskumen beteak ez izatea, baina haietarako gaikuntza bai izatea; bada, halakoetan ere kontuan hartu behar da. Izan ere, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onetsi zuenak, bere baitan jasotzen dituen eskumen-tituluen bidez etorriko zaio gaikuntza hori, eta eskumen-titulu horietan oinarriturik onartuko ziren, bere garaian, orain Zerbitzuen Direktibara egokitu beharrez aldatzen diren legeak.

Legeak 126 artikulua ditu, 15 kapituluak bilduak, eta bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. kapituluak Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea aldatzen du. Horrela, jokoari buruzko legearen ezarpen-eremutik kanpo geratu dira zorrozki harturik diru-kopururik edo ekonomikoki neurtzeko moduko beste objekturik arriskatzeko ez duten jarduerak, zein emaitza izango duen jakiterik ez dagoen gertakizun batean.

Lege honen eremutik kanpo geratu dira denbora-pasa hutsa diren jolas-makinak, gaur egun AR motako edo berrerospeneko jolas-makina deitzen direnak izan ezik, hau da, erabiltzeko eta jokatzeko denbora-tarte bat emateaz gain, erabiltzailearen trebetasunaren arabera tiketak, fitxak edo antzeko elementuak lortzeko aukera eskaintzen dutenak; elementu horiek, gainera, trukatu ahal izango dira pilatu eta aurrez zehaztu den eta erabiltzaileak ezagutzen duen balioko ondasunen bidez. Balio horren diru-kostuak ez du gaindituko hori lortzeko gutxienez jokatu behar diren partiden prezioa.

Denbora-pasa hutsa diren saririk gabeko makinak, gaur egun AR motako edo berrerospeneko jolas-makina deitzen direnak izan ezik, lege honen eremutik kanpo uzteak jolas-aretoek bete behar duten erregimenean aldaketak egin beharra ekarri du. Jolas-areto horietan berrerospeneko jolas-makinak, AR motako jolas-makina gisa sailkatuta daudenak, jarri ahal izango dira, eta areto horiek martxan jartzeko, ez da alde aurretiko baimenik behar izango; nahikoa izango da erantzukizunpeko adierazpena egitea. AR makinak ustiatzeko baimenaren orde, erantzukizunpeko adierazpena egin behar da.

Arrazoi berdinegatik kendu da Administrazioaren aurretiazko baimena produktu edo zerbitzu baten sustapena eta publizitatea egitea helburu duten ausazko konbinazioak antolatuz, egin eta garatu ahal izateko, betiere jendeak doan har badezake parte jarduera horietan. Asmoa merkataritza sustatzeko tresnak malgutzea da.

Bestetik, bingoei eta jokorako beste leku batzuei ematen zaizkien lizentziak aurrerantzean ez dira aldi baterakoak izango, eta beste horrenbeste gertatzen da beste baimen zehatz batzuekin; izan ere, baimen horiek, orain arte, praktikan, betekizun burokratiko bat baino ez dira izan, aldian-

aldian baimena berritzea eskatzen zuena. Jokoan ematen diren lizentzia eta baimenak segidako traktukoak dira, eta beraz, horiek berritu beharra dagoela eskatu gabe ere, edozein unetan ezeztatzeko aukera egongo da, ematerakoan jarri ziren baldintzak ez direla betetzen ikusten bada.

Bukatzeko, aldaketa txiki batzuk ere jaso dira jokoaren arloko zehapen-erregimenean, gorago aipaturiko aldaketak kontuan izanda.

II. kapituluan, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 9. artikulua aldatzen da, eta horren ondorioz, erabilera berezietarako diren zenbait lokalek establezimendu lizentzia eskatu beharko dute; beste horrenbeste gertatuko da jende kopuru jakin bat hartzeko gaitasuna duten lokalekin ere, eta establezimenduetako musika-ekipoen potentzia ere kontuan hartuko da, hain zuzen ere lokaletan dauden pertsonen segurtasuna zaintzeko, eta hirugarrenei eragozpenak eragitea saihesteko.

Zalantzarik gabe, establezimendu horietan interes orokorra zaindu beharra eragiten duten hainbat arrazoi daude (osasun publikoaren arlokoak, kontsumitzaileak babestearen ingurukoak edo hiri-ingurua babesteari loturikoak), eta horrekin batera, hirugarrenen interes legitimoak zaindu beharra ere badago, bereziki auzotarrena. Horren guzti horren ondorioz, Administrazioaren kontrol-erregimena ikuskizun publikoen, jolas-jardunen eta horiek egiten diren establezimenduen gainean lege honetan zehaztea justifikaturik dago, eta horrek barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Direktibarekin bat egin du.

Irizpide berarekin jarraituta, gorago aipaturiko 4/1995 Legeari 9 bis artikulua erantsi zaio, eta horretan esaten denez, 9. artikuluan aipatzen ez diren lokalei ez zaie alde zuzenetik lizentzia edo baimenik izatea eskatuko; horren ordez, aurretiazko komunikazioa behar duten jarduera sailkatuen prozedura bete beharko dute, hain zuzen ere otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babestekoan, esaten denaz bat.

Horrela jardunda, lege honen helburuetako bat betetzen da, justifikaziorik ez duten izapide edo traba burokratikoak kendu nahi baititu, batetik, eta bestetik, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak eskaintzen dituzten lokalen erabiltzaileen segurtasuna babesten du.

III. kapituluan, abenduaren 1eko 7/2006 Legea aldatzen da, Euskadiko Museoei buruzkoa. Direktibak dakar zerbitzuak ematen dituzten enpresak eta pertsonak askeak direla estatu kideetan kokatzeko, eta estatu kideen artean zerbitzuak eskaintzeko askatasuna dagoela. Horregatik, jartzen du, era berean, ezin dela horrela eta horrela inolako baimen-premiarik ezarri zerbitzuak eskaini ahal izateko, salbuespena izan behar duela horrek, tartean baldintza batzuk daudenerako soilik. Eta Euskadiko Museoei buruzko Legea aztertzean, ikusten da 2. artikuluko 7. paragrafoa aldatu beharra dagoela, baimen-sistema bat dakarrelako horretarako baldintzarik ez egonagatik ere, eta, hortaz, aipatu berri diren eskubide horiek urratu egiten dituelako.

IV. kapituluan, azaroaren 12ko 8/2004 Legea aldatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriakoa. Aurrerantzean, egindako aldaketekin, aurretiazko baimena ez baino, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena eskatuko da. Adierazpen horretan, gauza hauek jaso beharko dituzte: dena delako jardueran aritzeko eskatu diren baldintzak betetzen direla; hala dela egiaztatzeko agiriak edonoren eskura eduki behar dituztela, eta jarduera horretan ari diren bitarte osoan beteko dituztela agindu beharko dute. Era berean, aurrerantzean ez da zertan, jarduerari ekin baino lehenago derrigor, Industria Erregistroan inskribatu beharrik izango. Orain arte interesdunak eskatu behar izaten zuten, eta aurrerantzean administrazioak berak egingo du, bere kasa. Azkenik, arau-hausteen eta zehapenen artean ere bada berritasunik. Aurrerantzean, erantzukizunpeko adierazpenean datu faltsuak edo ez-zehatzak ematea edo derrigorrezko datuak

eman gabe uztea zehapen-araubidean jasota egongo da, eta adierazpen hori ez aurkeztea ere bai. Eta beste aukera bat ere jaso da: administrazioaren ebazpen bidez, interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea.

V. kapituluak maiatzaren 27ko 1994 Legea, Merkataritza Jarduerari buruzkoa, aldatzen du, eta 13. artikulua 5. paragrafoa beste modu batean idazteaz gainera, 12. artikulua eta 29. artikulua 6. paragrafoa ezabatzen ditu; aldaketa horiek lege honetan bertan Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legean eta ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan, egindako aldaketekin bat datoz, eta udal-lizentziei eragiten diete. Izan ere, epe bat ezartzen da merkataritzaren arloko eskumenak dituen organoak txostena egin dezan, eta beharrezkoak ez diren baimen-emateak bertan behera geratzen dira.

VI. kapituluak, Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legean funtsezko hainbat aldaketa egiten dira, baina horrek ez du esan nahi beste arrazoi batzuegatik beste aldaketa txikiago batzuk ere egiten ez direnik. Batez ere, lege sektorialean egindako aldaketak aipatu behar dira:

– Aurrerantzean, jarduerari ekin baino lehenago ez da administrazioaren baimena lortu beharrik izango, eta, horren ordez, erantzukizunpeko adierazpena egin beharko dute, hau da, adierazi beharko dute betetzen dituztela dena delako jarduerarako legezko eta erregelamenduzko baldintzak, badituztela hori hala dela egiaztatzeko agiriak, eta jarduerak irauten duen bitarte osoan beteko dituztela. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten egunetik bertatik ekin ahal izango zaio dena delako jarduerari. Administrazioak, hala ere, izango du gauza batzuk konprobatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena, eta beste erakunde batzuek ere bai, eskumenez, beste ahalbide batzuk dituzten neurrian. Ondorioz, aurrerantzean, martxoaren 16ko 6/1994 Legean, erregistroko inskripzioa ez da ezer osatzeko derrigorrezko inskripzioa izango. Hainbat urraketaren ondorioak ere zehazten dira: erantzukizunpeko adierazpenarekin batera joan behar duten datu, adierazpen edo agirietan funtsezko zer edo zer aurkeztu gabe uzteak, edo, aurkeztu bai, baina bertan datu ez-zehatzak edo faltsuak adierazteak dakartzan ondorioak.

– Turismoko enpresek badute kokatzeko askatasuna, baina, lanean hasi aurretik, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute Turismo Administrazioan.

– Legean beste artikulua bat eransten da, turismoko ostatuak bete beharreko gutxieneko baldintzak bete beharra izatetik salbuesteko erregimena zein den jasotzeko, baina halaber zehazten da dispentsa-eskabideak hiru hilabeteko epean ebatzi beharko direla, bestela, epe horretan ebatzi ezean, eman egin direla ulertuko da.

– Aurrerantzean, nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeetarako, ez da bertan bizi beharrik izango. Turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legea idatzita dagoen moduan, 26 eta 27. artikuluetan hain zuzen ere, titularrak ohiko bizilekua establezimenduan eduki behar du, bertan edo bertako bizileku batean. Baina Zerbitzuen Direktibako 14. artikulua dio baldintza hori debekatuta dagoela eta ezabatu egin behar dela.

– Bidaia-agentzien arloan, aldaketa hauek egiten dira: horiek nola sailkatu, erregelamendu bidez zehaztuko da, eta beren jarduera-eremu eskusiboa bidaia konbinatuak antolatu eta saltzera murrizten da. Era berean, Zerbitzuen Direktibaren 15. artikuluan (ebalutzeko diren betekizunak) eta 25.ean (hainbat eratako jarduerak) esaten denarekin bat, ez dute derrigorrez gutxieneko kapital bat jarri beharrik izango, ez eta jarduera jakin bat bakarrik aurrera eramanez beharrik izango.

2012ko apirilaren 30a, astelehena

– Era berean, bidaiia-agentzien kasuan intrusismoari buruzko erreferentzia kentzen da, agentziok ez daukatelako inolako ezaugarri berezirik turismoaren arloko gainerako enpresekin alderatuta, eta ondorioz, kasu horietan martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 66 a) artikuluan aurreikusitako arau-haustea ezarriko zaie.

– Jatetxe-enpresei buruzko xedapen batzuk aldatzen dira; aurrerantzean, bi motatakoak izango dira: jatetxeak eta tabernak, eta ezabatu egiten da horiek kategoriatan sailkatzea. Halaber, aldaketak ere egin dira erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharrari eta turismo-enpresen erregistroan sartu beharrari dagokionez.

– Turismo-arloko lanbideak direla-eta, legeak berariaz jasota dakar erregelamenduz prestakuntzaren bat eduki beharra eskatzeko aukera. Horrek ez du esan nahi beste estatu kide batzuetako zerbitzu-emaileen lanbide-prestakuntza aitortuko ez denik. Halaber, beste autonomia-erkidego batzuetan kokatuta dauden zerbitzu-emaileek askatasunez gauzatu ahal izango dute beren jarduera, etengabe nahiz aldi baterako, Euskal Autonomia Erkidegoan.

– Azkenik, arau-haustek eta zehapenak datoz. Zehapen-araubidean, zehatzeko kasu berri batzuk gehitu dira, hain zuzen ere, erantzukizunpeko adierazpeneko edozein datu, adierazpen edo agiritan funtsezko zer edo zer ez bada zehatza, faltsua bada edo jarri gabe geratu bada. Eta beste aukera bat ere jaso da: administrazioaren ebazpen bidez, interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagokora itzularaztera, eta urtebetez behintzat helburu berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea.

VII. kapituluan, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzekeo maiatzaren 7ko 5/2004 Legea aldatzen da, 30. artikuluko zati batzuk ez zetozelako bat Zerbitzuen Direktibarekin, eta hain zuzen ere, 14. artikuluko 1 eta 8. paragrafoetan jartzen duenarekin. Oinarri gisa ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean bakar-bakarrik instalazio hauetan egin ahal izango dela ardoa: nahitaez eta funtzionatzen hasi aurretik, erantzukizunpeko adierazpena nekazaritzako elikagaien industriaren arloan eskuduna den sailean aurkeztu duten instalazioetan, instalazio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatze aldera. Bestetik, lege honetan ondorengo jasotzen da: ardogintzako azpiproduktuak deuseztatzeko aukera, azpiproduktuak kontrolpean eta arauz ezarriko den moduan kentzearen bitartez; eta azpiproduktuak kentzeko betebeharretik salbuestea pertsona fisiko edo juridiko ekoizle batzuk, kasuan kasuko mahats-kanpainan beren instalazioetan gehienez ere 25 hektolitro ardo edo muztio ekoizten dituztenak. Aipatutakoak ez betetzearen ondorioz etorriko diren zehapenen eta arau-hausteen araubidea ere egokitu da.

VIII. kapituluan, otsailaren 27ko 3/1998 Legea aldatzen da, Euskadiko Ingurugiroa Babesten duen Lege Orokorra, alegia. Zerbitzuen Direktiban zer jartzen duen ikusita, sailkaturik dauden jardueren araubide juridikoa aldatzea da egin beharrekoa. II. eranskinean dago jarduera horien zerrenda. Honako hau egin da: jarduera bakoitzak ingurumenean eta pertsonengan zer-nolako eragina duen ikusi, eta administrazioak jarduera horietan esku hartzeko hainbat araubide zehaztu, eragin horren arabera. Hartara, ustez eraginik txikiena dutenek bete behar duten araubidea komunikazioarena izango da. Horretarako, 3/1998 Legeko III. tituluko III. kapituluko hainbat artikuluren edukia aldatu, eta zehapen-araubideari buruzko artikulua egokitu egin dira.

IX. kapituluan, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aldatzen da. Izan ere, lege horretan badira gauza batzuk Zerbitzuen Direktibaren eta Estatuko arauen aurkakoak direnak edo haiekin bat ez datozenak. Legean egin diren aldaketetan, badira funtsezko gauza batzuk, legea aplikatzeko orduan oinarritzko printzipio modura balio dutenak, esate baterako, kontsumitzaileak babestu beharra eta Lehiaren Zuzenbidea

errespetatzea. Beste alde batetik, elkargoaren funtzionamenduarekin berarekin zerikusia duen hainbat kontu ere ukitu dira, hala nola derrigor kolegiatu beharra, elkargoaren bisatua eskatu beharra, elkargoek gutxi gorabeherako baremoak jartzea, eta direktibaren asmo orokorrarekin zerikusi handiagoa duten beste hainbat gauza, zerbitzua partikularrari ematen zaionerako, esate baterako, informazio-leihatila bakarra.

X. kapituluaren 17ko 12/1994 Legea aldatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa. Herritarrek Administrazioa jartzeko duten bidea eta hark eman beharreko erantzuna ere badatoz nolabait direktiban jorraturik, eta han dioena legera ekartzea izan da egin dena. Beste alde batetik, aurrerantzean Administrazioak fundazioekin ez du orain arteko moduan jokatu, hau da, fundazio berririk sortu behar denean, orain arte baino malguagoa izango da, gauzak errazteko joera izango du, eta jarrera hori bera izango du fundazioetan denboraren poderioz eta ibiliaren ibiliaz gertatzen diren aldaketak onartzeko orduan ere, hala nola gobernu-organoa, patronatua, osaketa-araua edo sorrerako estatutuak aldatu behar dituztenean, eta jarrera berri hori ere islatu da, egin beharreko aldaketak eginez. Orain bete behar izaten diren baldintza batzuk direla-eta, Fundazioen Erregistroan eskabiderik aurkezten denean, Administrazioa nahikoa arin erantzun ezinik ibiltzen da, aurkezten diren eskabide guztiei garaiz erantzun ezinik, administrazio eraginkor eta zuzen batek beharko lukeen bezain garaiz esan nahi da. Bada, oztopo horiek ezabatzea da egin dena.

XI. kapituluaren 17ko 11/1994 Legea aldatzen da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikorako Legea. Izan ere, Zerbitzuen Direktibako 15. artikuluan jartzen duenez, balioetsi beharreko eskakizunen artean, batek dio ikusi behar dela ea badagoen edo ez «langile-kopuru gutxienerako bat edukitzeko» obligazioaren bat. Beste alde batetik, azaroaren 23ko 17/2009 Legeko 11. artikuluan jartzen duena ere bete nahi izan da (zerbitzuetara libreki iristeari eta zerbitzuetan libreki jarduteari buruzkoa da lege hori), han jartzen baitu zerbitzuetara iriste hori edo zerbitzuetan jardute hori ez dela langile-kopuruari buruzko ezelako eskakizunen edo halako edo bestelako jatorriz edo modalitatez kontratatzeko obligazioaren mendean egongo. Horregatik ezabatu da lege horretako 31. artikuluko 3. paragrafoko bigarren idatz-zatia (Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legean, ekainaren 17ko 11/1994 Legean).

XII. kapituluaren 5eko 12/2008 Legea aldatzen da, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Lau gauza aldatu dira. Lehenik eta behin, aurrerantzean, gizarte-zerbitzuak betetzen eta ematen jardun ahal izateko, aurretiaz administrazioaren dena delako baimena lortu beharko da, eta, gainera, aseguru-poliza bat hitzartu beharko da, titularren erantzukizun zibila estalita edukitzeko, badaezpada lokaletako, instalazioetako eta zerbitzuetako baldintza objektiboak direla-eta edo zerbitzuko langileen lana dela-eta erabiltzaileei inolako kalterik eragiten bazaie ere. Bigarrenik, baimena emateko prozeduran, administrazio-isiltasunak baietz esan nahiko du, hartara, eskaerak hiru hilabeteko epean ebatzi beharko dira, bestela, ebatzi ezean, onartu egin direla ulertuko da. Hirugarrenik, baliteke dena delako zerbitzua eskaintzeko, establezimendu fisiko egonkor baten premia egotea, hartan oinarriturik eskaintzeko zerbitzua. Halakoetan, zerbitzuak betetzeko eta eskaintzeko administrazio-baimen bakoitza halako establezimendu fisiko bakarrerako izango da, hartara, zerbitzuak hartu behar dituztenak behar bezala babesteko. Eta, azkenik, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak Europar Batasuneko beste estatu batean kokaturik baldin badaude, aurrerantzean, libreki eskaini ahal izango dituzte zerbitzu horiek, erregistroan izena eman beharrik gabe, edo gizarte zerbitzuak betetzeko eta eskaintzeko aurretiazko administrazio-baimena lortu beharrik gabe.

XIII. kapituluaren 8ko 1/2008 Legea aldatzen da, Familia Bitartekaritzakoa. Ondorioz, familia-bitartekaritzaren lanbide-jardueran hasteko edo horretan aritzeko baimen-erregimena bertan behera uztea erabaki da. Kontuan izanda badirela titulu egokia duten profesionalak, eta pertsona

horiek familia-bitartekaritzaren lana beren eskumen profesionalen barruan izanda aurrera eraman dezaketela, berariaz jaso da familia-bitartekaritzako jarduera profesionalak Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legea bete beharrik izan gabe aurrera eraman ahal izatea; gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Bitartekarien Erregistroan izena eman behar izatea borondatezkoa izango da aurrerantzean. Ondorioz, legeko artikuluetan aldatu beharrekoak aldatu dira.

XIV. kapituluan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzen da. Egindako aldaketak direla eta, kendu egin da, oro har, irekitzeko lizentzia lortzeko baldintza, baina zehaztutako zenbait kasutan lizentzia hori eskuratu beharra egongo da, esate baterako ordenarekin, segurtasunarekin edo osasun publikoarekin zerikusia duten kasu batzuetan.

Gainera, eta kontuan izanda, araudi sektorial baten ondorioz, irekitzeko lizentziaren ordezkari komunikatu beharra eskatzen duen erregimen bat jarri behar dela kasu batzuetan, egoki ikusi da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 206. artikuluko 1. paragrafoari beste idatz-zati bat eranstea, hain zuzen ere jasota gera daitezkeen lege horretan toki-erakundeek herritarren jardueretan esku hartzeko dituzten beste bide horiek, betiere artikuluko horretan aurreikusitako jarduerak legezkoak ote diren kontrolatzeko.

XV. kapituluan, Animaliak Babesten dituen urriaren 29ko 6/1993 Legea aldatzen da. Aldaketa honetan datza: ezabatu egiten da haztegiak, salmentarako tokiak eta animaliak aldi batez edukitzeko tokiak baimentzeko araubidea. Hartara, baimenaren ordezkari titularrak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, non adieraziko baitu ezarritako eskakizunak betetzen dituela, hori egiaztatzen duten dokumentuak badituela eta establezimenduak, haztegiak, zentroak edo instalazioak irauten duen bitartean eskakizun horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela.

Lehenengo xedapen iragankorrean, legea indarrean sartu baino lehenagotik abiarazitako baimen-prozeduretan aplika daitezkeen araubide iragankorra zehazten da.

Legea indarrean jarri aurretik ere, bazen hainbat pertsona eta enpresa zerbitzuetan aritzeko baimendurik edo habilitaturik, eta, hain zuzen ere, bigarren xedapen iragankorrean, halakoei aplika dakiekeen araubide iragankorra arautzen da, hau da, lehenengo administrazio-baimenaren ordezkari zerbitzuetara iristeko edo zerbitzuetan aritzeko aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dutela.

Xedapen indargabetzaile bakarrak baliogabetu egin ditu lege honek agindutakoaren kontra ari diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak, eta bereziki martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua. Dekretu horrek adierazten du Euskadiko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak agintzen duen jarduera-lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jarduerak zein diren.

Azken xedapenetako lehenak Eusko Jaurlaritzari lege hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapenak sortzeko bidea ematen dio, dagozkion eskumenen esparruan.

Azken xedapenetako bigarrenak, azkenik, agintzen du lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko dela indarrean.

I. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JOKOA ARAUTZEN DUEN AZAROAREN 8KO 4/1991
LEGEA ALDATZEA

Lehenengo artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 1. artikulua, «Xedea», eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan jokoari eta apustuei lotutako jarduera guztiak arautzea, modalitate eta izendapen guztietakoak, barne hartuta baliabide elektronikoa, informatikoa edo telematikoez edo urruneko komunikazioko beste edozein baliabidez egiten direnak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 10.35 artikulua ezarritakoarekin bat etorrita.

2.– Lege honen eremutik kanpo geratzen dira:

a) Denbora-pasa hutsa edo jolas hutsa diren jokoak edo lehiaketak, tradizioan, familian edo lagunartean errotutako gizarte-ohitura direnak, betiere jokalariek edo beste norbaitek irabazi-asmorik ez badute.

Halaber, lege honetatik kanpo geldituko dira kirol-joko edo -lehiaketak, irabazi-asmoa dutenak eta ez dutenak. Ez dira lege honetatik kanpo geldituko, ordea, kirol-joko edo -lehiaketen gaineko apustuak.

b) Denbora-pasa hutsa diren jolas-makinak, baldin eta, prezio baten truke, haiek erabiltzeko eta haiekin jolasteko denbora-tarte bat ematen badute, betiere jolasaren garapena aurretik kontrolatuta eta programatuta badago, edo, gehigarriko eragingarri bakar gisa hauetako bat eskaintzen badute: partidaren zenbatekoa itzultzea, eskudirutan edo balio bereko gauzatan edo zernahi ondasunekin trukagarriak diren balio bereko fitxatan; partida bera luzatu ahal izatea edo hasierako zenbateko berarekin partida gehiago lortzea».

Bigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 3. artikuluari, «Joko Zerrenda» izenekoari, 5. paragrafoa gehitzen zaio, honela idatzita:

«5.– Ausazko konbinaziotzat joko dira eskudirutan, gauzatan edo zerbitzutan sari jakin batzuk emateko egiten diren zozketak, era askotako baliabideak eta euskarriak erabilia, telematikoak eta elektronikoak barne, helburu bakarra izanik produktu edo zerbitzu baten publizitatea edo sustapena egitea, publizitatearen xede den ondasun edo zerbitzua kontsumitzeko kontraprestazioarekin, baldin eta, jarduera horietan, jendearen parte-hartzea doakoa bada eta inoiz ere ez badago gainpreziorik edo tarifakazio gehigarririk edozein delarik ere horretarako erabiltzen den prozedura edo sistema.

Ausazko konbinazioen sariak, zozketa-eguna baino lehen, eskuratu eta leku jakin batzuetan instalatu edo utzi beharko dira, egiazkoak direla ikusi ahal izateko edo haien balioaren zenbatekoan bermea eratu ahal izateko.

Arloan arloko erregelamenduetan ezarriko da ausazko konbinazioei eskatu ahalko zaizkien betekizunak, gardentasuna bermatuta egon dadin txartelak edo partaidetzak banatzeko edo esleitzeko prozeduretan eta sariak esleitzekoetan, bai eta egin beharreko publizitatean ere».

Hirugarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 4. artikuluari, «Jokoari buruzko plangintzako irizpideak» izenekoari, 2. paragrafoa gehitzen zaio, honela idatzita:

«2.– Lege honen arabera egiten diren jokoan eta apustuen lokal guztiak barne hartuko ditu plangintzak, lokalen titulartasuna publikoa nahiz pribatua izan».

Laugarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen «Baimenak» izeneko 5. artikuluko 3. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Lege honetako 3. artikuluan jasota dauden joko motak ustiatzeko baimenak besterenezinak dira eta baliozkoak izango dira baldin eta baimenen indarraldian betetzen badira indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizun guztiak».

Bosgarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 5. artikuluari, «Baimenak» izenekoari, 5. paragrafoa gehitzen zaio, honela idatzita:

«5.– Ez da beharrezkoa izango aurretiazko administrazio-baimena lortzea, lege honetako 3. artikulua 5. paragrafoan jasotako ausazko konbinazioak antolatu, egin eta garatzeko.

Halakoetan, enpresa antolatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du joko-gaietan eskumena duen zuzendaritzan, ausazko konbinazioari hasiera eman zaiola jakinarazteko.

Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten den egunetik bertatik ekin ahal izango zaio jarduerari, joko-gaietan eskumena duen zuzendaritzak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko duen ahalmena kendu gabe.

Aurkeztutako agirian antolatzaileak adieraziko du, bere erantzukizunpean, betetzen dituela dagokion arloko erregelamenduetan ezarritako baldintzak, badituela hori hala dela egiaztatzeko agiriak eta agintzen duela jarduerak irauten duen bitartean ere beteko dituela».

Seigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen «Baimena duten joko lekuak» izeneko 10. artikuluko 3. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Jolas-lekuetan AR motako edo berrerospeneko jolas-makinak instalatzeko baimena eman ahal izango da».

Zazpigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen «Bingoak» izeneko 12. artikuluko 4. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«4.– Bingo-aretoak ustiatzeko baimenek indarrean iraungo dute baimena emateko kontuan hartu ziren baldintza guztiak betetzen diren artean».

Zortzigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita gelditzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 13. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«13. artikulua- Joko-makinak eta -sistemak eta ustiatzeko baimenak.

1.– Lege honen ondorioetarako, joko-makina eta -sistema hauek bereizten dira:

a) Joko-makinak: eskuzko aparatuak zein aparatu automatikoak, diruaren edo ordainketa-bide baliokideen truke erabiltzaileari erabiltzeko denbora-tartea ematen diotenak eta, batzuetan, sariak lortzeko aukera ere bai, dirutan, gauzatan, zerbitzutan edo horiekin truka daitekeen edozein produktutan. Joko-makina mota hauek bereizten dira:

– AR mota. Berrerospeneko jolas-makinak: erabiltzeko eta jokatzeko denbora-tarte bat emateaz gain, erabiltzailearen trebetasunaren arabera tiketak, fitxak edo antzeko elementuak lortzeko aukera ematen duten makinak; elementu horiek, gainera, trukatu ahal izango dira pilatu eta aurrez zehaztu den eta jokalaria ezagutzen duen balioko ondasunen bidez. Balio horren diru-kostuak ez du gaindituko hori lortzeko gutxienez jokatu behar diren partiden prezioa.

– B mota. Jolas-makina saridunak: jokaldiaren prezioaren truke, erabiltzaileari erabiltzeko denbora-tarte bat eta, batzuetan, diru-saria ematen dioten makinak.

– C mota. Zorizko makinak: prezio baten truke erabiltzaileari erabiltzeko edo jokorako denbora-tarte bat eta, batzuetan, zoriaren araberako diru-saria ematen dioten makinak.

Lege honetan araututako joko desberdinen modalitate, elementu edo mekanikak konbinatuta sariak lortzeko aukera ematen duten eskuzko makinak zein makina automatikoak, goian azaldutako mota horietakoak ez direnak, mota desberdinu gisa sailkatu ahal izango dira, eta berariazko araudiak ezarriko du horien araubidea eta ezarpen-eremua.

b) Makina laguntzaileak: eskuzko aparatuak zein aparatu automatikoak, diruaren edo ordainketa-bide baliokideen truke, eta jokoaren osagarri, erabiltzaileari indarrean dagoen Jokoen Katalogoan jasotako beste modalitate batzuetan parte hartzeko aukera ematen diotenak.

c) Joko-sistemak: diruaren edo ordainketa-bide baliokideen truke, erabiltzaileari Jokoen Katalogoan jasotako edozein joko-modalitatetan aritzeko aukera ematen dioten beste elementuak edo euskarri informatikoak edo telematikoak. Elkarrekin konektatuta egon daitezke, sare lokaleko zerbitzarien bidez, behar bezala baimendutako sare lokal batean, edo sare informatikoak, telematikoak, satelitea edo urruneko bestelako komunikazio- edo konexio-bideak erabilia.

2.– Erregelamendu bidez ezarriko dira jolas-makina saridun bakoitza kontrolatzeko elementuak, zenbat partida jokatu diren eta zenbat diru bildu edo sartu den jakiteko.

3.– AR motako edo berrerospeneko jolas-makinak ustiatu ahal izateko, aurretiazko komunikazioa igorri behar zaio gaian eskumena duen zuzendaritzari, eta erantzukizunpeko adierazpena erantsi behar zaio, horiek ustiatzeko erregelamenduz ezarritako baldintza tekniko guztiak betetzen direla egiaztatzeko.

4.– B eta C makinak ustiatu ahal izateko, bana-banako baimena eduki beharko da, 'ustiatzeko baimena' izeneko.

Ustiatzeko baimena beste baten esku uzteko, Herrizaingo Sailaren baimena beharko da.

Erregelamendu bidez mugatuko da titular bakoitzak makina saridunak ustiatzeko gehienez ere izan dezakeen baimen-kopurua, eta titularrak, ez bere izenean ez tartean jarritako pertsona baten bidez, ezingo du muga hori gainditu».

Bederatzigarren artikulua.— Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen «Joko aretoak» izeneko 14. artikuluko 3. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«3.— Joko-aretoak ustiatzeko baimenek indarrean iraungo dute baimena emateko kontuan hartu ziren baldintza guztiak betetzen diren artean».

Hamargarren artikulua.— Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 15. artikulua, «Jolas aretoak», era honetara:

«1.— AR motako edo berrerospeneko jolas-makinak bakarrik ustiatzen dituzten establezimenduak dira jolas-aretoak.

2.— Jolas-aretoak ustiatu ahal izateko, jarduera hasi aurretik jakinarazpena igorri beharko zaio joko-gaietan eskumena duen zuzendaritzari, eta erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko zaio, indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzeko».

Hamaikagarren artikulua.— Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 16. artikulua, «Ostalaritza alorreko establezimenduak», era honetara:

«1.— Ostalaritzako lokal eta instalazioetan, dantzalekuetan, dantza-saletan eta diskoteketan gehienez ere hiru joko-makina jarri ahal izango dira, ezaugarri hauetakoak:

– B motako makina bat.

– AR motako edo berrerospeneko bi jolas-makina.

– Apustuen, txartelen edo ausazko konbinazioen makina laguntzaile bat, berdin dio hiruretatik zein.

2.— Establezimendu horietan jokoak komertzializatzeko, praktikatzeko edo ustiatzeko edozein makina edo ekipo jarri ahal izateko, jokoaren arloko zuzendaritza eskudunaren aurreiazko baimena beharko da nahitaez, eta betiere aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira eta orobat lege honetako 4. artikuluan aurreikusitako plangintza.

3.— Establezimendu horietan jendaurrean jarri beharko da debekatuta dagoela adingabeek B motako makinak eta apustuen, txartelen edo ausazko konbinazioen makina laguntzaileak erabiltzea».

Hamabigarren artikulua.— Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen «Joko makinaren enpresa eragileak» izeneko 21. artikuluko 4. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«4.— Enpresa-operadoreen baimenek indarrean iraungo dute baimena emateko kontuan hartu ziren baldintza guztiak betetzen diren arte».

Hamahirugarren artikulua.— Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen «Akuratutako lanariak» izeneko 22. artikuluko 1. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1.— Erregelamendu bidez ezarriko da zeintzuek eduki beharko duten agiri profesionala, lege honetan araututako jokoak ustiatzen dituzten enpresetan beren eginkizunak betetzeko. Agiri hori Herrizaingo Sailak emango du, eta indarrean iraungo du baimena emateko kontuan hartu ziren baldintza guztiak betetzen diren artean».

2012ko apirilaren 30a, astelehena

Hamalagarren artikulua.– Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen «Arau-hauste larriak» izeneko 26. artikuluko 9 eta 10. paragrafoak, eta honela idatzita geratzen dira:

«9.– Baimendutako kopurua baino AR motako edo berrerospenerako jolas-makina gehiago ustiatzea.

10.– Zerbitzu edo produktu baten sustapena eta publizitatea egitea helburu duten ausazko konbinazioak antolatu, egin eta garatzea, jarduera hasi aurretik 5.5 artikuluan ezarritako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez bada».

Hamabosgarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 26. artikuluari, «Arau-hauste larriak» izenekoari, 9 bis paragrafoa gehitzen zaio, honela idatzita:

«9 bis.– Jolas-aretoak eta AR motako edo berrerospenerako jolas-makinak ustiatzea joko-gaietan eskumena duen zuzendaritzari aurrez jakinarazi gabe».

II. KAPITULUA

JENDAURREKO IKUSKIZUNAK ETA JOLAS JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN AZAROAREN 10EKO 4/1995 LEGEA ALDATZEA

Hamaseigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita gelditzen dira Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak Arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 9. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«9. artikulua.– Aurretiaz establezimendu-lizentzia behar izatea.

1.– Establezimendu-lizentzia beharko dute, funtzionatzen jarri aurretik, ikuskizunetarako edo jolas-jardueretarako lokal edo instalazio hauek:

a) Dantza-sala, dantzaleku, klub, diskoteka, disko-bar, karaoke, pub edo antzekoetarako establezimenduek.

b) Ostalaritza-establezimenduek, jatetxeek eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuek, baldin eta, betiere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

– 300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea.

– Lau ohmeko karga estandarrerako 50 wattetik gorako potentzia efikaza duen musika-ekipoa izatea.

2.– Aurreko paragrafoan jasotako lokalek, halaber, aurretiazko lizentzia beharko dute ikuskizun edo jarduera mota aldatzeko, instalazioak berritzeko edo tokiz aldatzeko.

3.– Lege honetan ezarritako lizentziak edo baimenak independenteak dira jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren berariazko arauak ez diren bestelako arau orokor edo sektorialen arabera eska daitezkeen lizentzia edo baimenei dagokienez».

Hamazazpigarren artikulua.– Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak Arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legeari 9 bis artikulua gehitzen zaio, honela idatzita:

«9 bis artikulua.– Aurretiaz jakinarazpena egin behar izatea

2012ko apirilaren 30a, astelehena

Aurreko artikuluan jasotzen ez diren ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalek, ireki aurretik, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena egin beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrek xedatutakoarekin bat etorrira».

III. KAPITULUA

EUSKADIKO MUSEOEI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 7/2006 LEGEA ALDATZEA

Hemezortzigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 2. artikulua izenburua, eta honela idatzita geratu da:

«2. artikulua.– Museoak eta bildumak: kontzeptua eta eginkizunak».

Hemeretzigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen «Museoak eta bildumak: zer diren eta zertarako diren» izeneko 2. artikuluko 7. paragrafoa.

Hogeigarren artikulua.– Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 10. artikuluari, «Euskadiko museo eta bildumen betebeharrak» izenekoari, j) idatz-zatia gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«j) Kultura-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari aurretiaz jakinaraztea museoaren edo bildumaren desegitea».

Hogeita batgarren artikulua.– Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 27. artikuluko 2.3 paragrafoari, «Arau-hauste arinak» izenekoari, h) idatz-zatia gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«h) Lege honen mende dauden museoek eta bildumek kultura-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari aurretiaz ez jakinaraztea museoaren edo bildumaren desegitea».

IV. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INDUSTRIAKO AZAROAREN 12KO 8/2004 LEGEA ALDATZEA

Hogeita bigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen «Industriako erantzukizunetarako araubidea» izeneko 3. artikuluko 3. paragrafoaren d) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da:

«d) Enpresa instalatzaileei, mantentze-lanak egiten dituztenei edo enpresa konpontzaileei, haien esku utzitako instalazioak behar bezala egitea edo mantentzea, eta haien jarduera hasteko eta garatzeko jarri zaizkien baldintzak betetzea».

Hogeita hirugarren artikulua.– Beste modu batean idatzita gelditzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 4. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«4. artikulua.– Industria-jardueren abiaburuko eta funtzionamenduko araubide orokorra. Erantzukizunpeko adierazpena, komunikazioa eta baimena.

1.– Lege honen ondorioetarako, hauek dira industria-jarduerak: industriako produktuak lortzeko, konpontzeko, mantentzeko, eraldatzeko edo berriro erabiltzeko jarduerak, ontziratzea eta paketatzea, eta hondakinak edo azpiproduktuak aprobetxatzea, berreskuratzea eta ezabatzea

–edozein dela ere horretarako erabiltzen den baliabidea edo prozesu teknikoa–, Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legean jartzen duen moduan.

2.– Industria-jarduerak aitorturik dute kokatzeko askatasuna, instalatzeko, zabaltzeko eta lekualdatzeko.

3.– Nolanahi ere, interesdunak komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, azaltzeko, hala badagokio, betetzen dituela eskatutako baldintzak, badituela hori hala dela egiaztatzeko agiriak eta agintzen duela jarduerak irauten duen bitartean ere beteko dituela, eta eskumena duen aginteari jarduera kontrolatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko dio honako kasu hauetan:

a) Baldin eta lege batek hala ezartzen badu, ordena publikoa, segurtasun eta osasun publikoa, laneko segurtasuna edo osasuna edo ingurumena babesteko arrazoiak tarteko.

b) Erregelamenduz dagoenean hala aginduta, Estatuak Europako Erkidegoko arauetatik edo nazioarteko itun eta hitzarmenetatik datozen obligazioak betetzeko.

4.– Zerbitzuak ematen dituen establezimendu fisiko bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da, bete behar dituen baldintzak betetzeari buruzkoa, dagozkion segurtasuneko erregelamendu teknikoek establezimendu jakin batzuek nahitaez ezaugarri jakin batzuk izatea aurreikusten duten kasuetan.

5.– Komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena Euskal Autonomia Erkidegoan aurkezten duenak, aurkezten duen egunetik aurrera, dagokion jarduera garatzeko gaikuntza izango du, epe-mugarik gabe. Komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena beste autonomia-erkidego batean aurkeztu duten enpresek askatasuna izango dute beren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan emateko eta bertan kokatzeko.

6.– Dena delako jardueran aritzeko funtsezko eskakizunak bete gabe geratzen badira, eta interesduna jakinaren gainean badago, jarduera eten egin beharko du berehala eta besterik gabe, eten behar hori eragin duen arrazoa konpondu arte. Interesdunak ez badu jarduera eteten, eta agintari eskudunek jakiten badute ez direla eskakizunak betetzen, interesdunari hiru eguneko epea emango diote azalpenak emateko, eta jarduera geldiarazteko aginduko dute lehenbailehen, organo arduradunaren ebazpen bidez, jarri daitezkeen zehapenei kalterik egin gabe.

7.– Jarduera bat geldiarazteko arrazoiak honako hauek ere izan daitezke: Administrazioak ikusten badu erantzukizunpeko adierazpeneko edo komunikazioko datuetan, adierazpenetan edo agirietan, funtsezkoa den zerbait zehatza ez dela, faltsua dela edo falta dela, edo ikusten badu adierazpena edo komunikazioa bera dagoela aurkeztu gabe.

8.– Ez-betetzereen bat egiaztatzen duen administrazio-ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesduna behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea. Jarduera geldiaraztea edo etetea eragin zuen arrazoa konpondu arte eta prozeduran esku hartu duen administrazioak hala dela ikusi arte, ezingo zaio berriro dena delako jarduerari ekin.

9.– Interesdunek erantzukizunpeko adierazpenean edo, hala badagokio, komunikazioan ematen dituzten datuek Industria Erregistorako datu modura balioko dute, hurrengo artikuluan zehazturik dagoen bezala.

10.– Administrazio eskudunaren aurretiazko administrazio-baimena eska daiteke, soil-soilik, baldintza hauek ezartzen direnean: inor ez baztertzea, premia eta proportzionaltasuna behar

bezain ondo arrazoituta egotea eta legez ere hala ezarrita egotea, eta Europako Erkidegoko arauetatik edo nazioarteko hitzarmen eta itunetatik datozen obligazioak betetzeko ezinbestekoa denean».

Hogeita laugarren artikulua.— Beste modu batean idatzita gelditzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 5. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«5. artikulua.— Industria Erregistroa.

1.— Industria Erregistroko inskripzioa Administrazioak berak egingo du ofizioz, baimenean edo komunikazioan edo erantzukizunpeko adierazpenean jasota datozen datuetatik abiatutik.

2.— Industria Erregistroa, batez ere, administrazio-tresna bat da, eta informazioa eskuratzeko erabiltzen da, bai industria-segurtasunerako behar den informazioa, bai industria-jardueri buruzkoa eta bai jarduera horiekin zerikusia duten zerbitzuei buruzkoa.

3.— Baimenean edo komunikazioan edo erantzukizunpeko adierazpenean, gutxienez, enpresen, industria-establezimenduen, industria-zerbitzuetarako enpresen eta eragile laguntzaileen datu orokorrak jaso beharko dira. Lege honetako 14. artikuluan dago zehazturik nor diren eragile horiek. Edonola ere, behin datuak Administrazioari jakinarazi ondoren, ez da haren erantzunik edo oniritzirik beharko, jardueran aritzeko, eta ezta Industria Erregistroan benetan inskribatzea ere.

4.— Baimenik, erantzukizunpeko adierazpenik edo komunikaziorik behar ez duten jardueretan ari diren pertsona fisikoek edo juridikoek badute beste aukera bat ere: organo eskudunari beren jarduerari buruzko datuak jarduera bera hasi eta gero ematea, Industria Jardueren Erregistroko inskripzioa ofizioz egiteko.

5.— Estatuko erregistroan ere inskriba dadin, organo eskudunak industriako eskumenak dituen ministeriora bidaliko ditu beharrezko datuak.

6.— Era berean, Administrazioak eska ditzake tamaina egiaztatzeko beharrezkoak diren datu zehatzak, hala nola ekoizteko gaitasuna, energia-kontsumoa, baliabide materialak eta langileak edo industria-jarduera deskribatzeko beste datu adierazgarri batzuk, kasuan-kasuan isilpekotasuna dela-eta aplikatu beharreko arauak errespetatuz.

7.— Inskripzioa egiteko prozedura printzipio hauen arabera izango da: bizkortasuna, administrazio-arintasuna eta gutxieneko kostua inskripzioa egin behar duten industria-sektoreentzat.

8.— Erregistroa publikoa da. Lege hau garatzeko xedapenetan zehaztuko da erregistrora nola iritsi eta horko datuak nola zabaldu, eta baita industriako sekretu-arauen edo kasuan-kasuan aplikatu beharreko arauen pean diren datuak isilpean bermatzeko beharrezko arauak ere».

Hogeita bosgarren artikulua.— Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen «Eragile laguntzaileak» izeneko 14. artikuluko 1. paragrafoa eta paragrafo horren a), b) eta f) idatz-zatiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1.— Lege honek dakartzan ondorioetarako, pertsona fisiko edo juridiko batzuk eragile laguntzailetzat hartuak izateko, beren zeregina betetzeko nahikoa gaitasun tekniko eta finantzazkoa eduki behar dute, eta beharrezko inpartzialtasuna, eta egiaztatu behar dute betetzen dituztela agindutako xedapen teknikoak, eta betetzen dituztela, orobat, industriako segurtasunarekin zerikusia duten eginkizunetan aritzeko eskakizunak —legez edo erregelamenduz zehaztuak—, lege honetan ezarrita dagoen moduan. Hauek hartu ahal izango dira eragile laguntzailetzat:

a) Kontrolerako edo egiaztapenerako erakunde modura edo saiakuntza- edo kalibrazio-laborategi modura baimendutakoak, eta substantzia arriskutsuak dituzten istripu larriei aurre hartzeko entitate ebaluatzaile modura baimendutakoak.

b) Gaitasuna duten teknikari tituludunak, profesional kualifikatuak eta erregelamenduetan aurreikusitako espezialitateetakoren batean gaituta dauden enpresak.

f) Normalizaziorako eta egiaztapenerako erakundeak, batera aritzen direnean industriako kalitate eta segurtasunerako; eta profesional kualifikatuak prestatzeko aitorturik dauden entitateak».

Hogeita seigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen «Eragile laguntzaileak» izeneko 14. artikuluko 7. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«7.– Jardueran hasi ahal izateko baldintza modura, eragile laguntzaileak behartuta egongo dira, erregelamenduz eskatzen den moduan, erantzukizun-arriskuak babestuko dituzten aseguru-polizak sinatzera; polizek zehazten den zenbatekoaren arabera izan beharko dute, baina zenbateko horrek ez du mugatuko aipatutako erantzukizuna».

Hogeita zazpigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen «Arau-hauste larriak» izeneko 31. artikuluko d) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da:

«d) Industriako segurtasun-arauen menpe dauden instalazioak egitea, ziurtagiriak ematea edo haiek kontrolatzea komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe, edo behar den baimenik izan gabe».

Hogeita zortzigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen «Arau-hauste larriak» izeneko 31. artikuluari o) eta p) idatz-zatiak gehitzen zaizkio, eta honela idatzita geratzen dira:

«o) Interesdunek, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten dutenean, bertan, jarduerarako funtsezkoa den edozein datutan zer edo zer faltsua esatea edo jarri gabe uztea, legez aginduta dauden eskakizunak betetzeari buruz.

p) Legez agintzen diren funtsezko eskakizunak bete gabe jardutea».

Hogeita bederatzigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen «Arau-hauste arinak» izeneko 32. artikuluko c) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da:

«c) Instalazioen titularrei edo erabiltzaileei ez jakinaraztea instalazioek zein gabezia dituzten eta zein lege-betebehar dituzten; bai eta, betebeharrok bete ezean, zein erantzukizun izan ditzaketen ere, betiere informazio hori ematea nahitaezkoa bada legez agindutakoaren arabera».

Hogeita hamargarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legearen «Arau-hauste arinak» izeneko 32. artikuluari h) idatz-zatia gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«h) Interesdunek, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten dutenean, bertan, jarduerarako funtsezkoa ez den edozein datu zehatz ez jartzea edo jarri gabe uztea, legez aginduta dauden eskakizunak betetzeari buruz».

2012ko apirilaren 30a, astelehena

Hogeita hamaikagarren artikulua.– Laugarren xedapen gehigarria eransten zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legeari, eta honela idatzita geratzen da:

«Laugarren xedapen gehigarria. Komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren betebeharra eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren betebeharra integratzea.

Baldin eta, lege honekin bat etorrira, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar bada eta, orobat, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (testu hori urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), edo hura garatzeko autonomia-arautegiaren arabera, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena ezin izango da aurkeztu harik eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin arte, eta derrigorrezkoa izango da, beti, hala egin dela egiaztatzen dituzten agiriak edukitzea».

V. KAPITULUA

MERKATARITZA JARDUERARI BURUZKO MAIATZAREN 27KO 7/1994 LEGEA ALDATZEA

Hogeita hamabigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 12. artikulua, «Irekitzeko baimena».

Hogeita hamahirugarren artikulua.– Aldatu egiten da Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen «Merkataritza-etxeak jartzea» izeneko 13. artikuluen 5. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«5.– Merkataritza-establezimendu handi bat ezartzeko edo handitzeko, udal-lizentzia eman aurretik, proiektatuko jarduera Saltoki Handiak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planean ezarritako irizpideetara egokitzen dela egiaztatzeko txostena egitea eskatuko dio kasuan kasuko udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan merkataritzaren arloko eskumena duen organoari. Txosten hori, betiere, bi hilabeteko epean egingo da».

Hogeita hamalagarren artikulua.– Ezabatu egiten da Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen «Salmenta automatikoa» izeneko 29. artikuluko 6. paragrafoa.

VI. KAPITULUA

TURISMOA ANTOLATZEN DUEN MARTXOAREN 16KO 6/1994 LEGEA ALDATZEA

Hogeita hamabosgarren artikulua.– Aldatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Aginpideak» izeneko 5. artikuluen 1. paragrafoko a) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Turismo-enpresetako establezimenduen jarduera antolatzea, dagozkien taldea, klasea, mota eta kategoria finkatuz, hala behar izanez gero».

Hogeita hamaseigarren artikulua.– Aldatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Turismo-enpresak eta -tegiak» izeneko 6. artikuluko 1. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Ostatu- eta jatetxe-zerbitzuak edo bidaiarien eta turismo-eskaintzaren arteko bitartekaritza-zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak dira turismo-enpresak. Halaber,

turismoarekin zuzeneko zerikusia izan eta erregelamenduz horrelakoetan sailkatzen direnak turismo-enpresatzat hartuko dira».

Hogeita hamazazpigarren artikulua.— Beste modu batean idatzita gelditzen dira Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 8. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«8. artikulua.— Turismo-enpresen kokatzeko askatasuna.

1.— Turismo-enpresek aitorturik dute kokatzeko askatasuna. Baina jarduerari hasiera eman baino lehen, turismo-ostatuko enpresek, bidaia-agentziek eta lege honetako 37. artikuluan zehazturik dauden turismo-enpresa osagarriek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute Turismo Administrazioan. Adierazpena titularrak egin beharko du, eta bertan adierazi beharko du, bere erantzukizunpean, betetzen dituela erregelamenduz agindutako eskakizunak, badituela hori hala dela egiaztatzeko agiriak, eta agintzen duela jarduerak irauten duen bitartean ere beteko dituela.

Turismo-ostatuko enpresek establezimendu fisiko bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute, enpresek zerbitzuak ematen dituzten lekutik, era horretara bermatzeko kontsumitzaileen eta zerbitzu-hartzaileen babesa.

2.— Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten egunetik bertatik ekin ahal izango zaio dena delako jarduerari, dagokion taldean, klasean, motan, kategorian edo espezializazioan. Turismo-administrazioak, hala ere, badu gauza batzuk konprobatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena; beste erakunde batzuek ere badituzte, eskumenez, beste ahalbide batzuk, eta honek ez du esan nahi erabili ezin dituztenik.

3.— Ez badute erantzukizunpeko adierazpena aurkezten, edo erantzukizunpeko adierazpeneko edozein datu, adierazpen edo agiritan funtsezko zer edo zer ez bada zehatza, faltsua bada edo falta bada, edo bete beharreko eskakizunak ez badira betetzen, eta agintari eskudunek hala dela egiaztatzen badute, gerta daiteke ezin izatea kasuan kasuko jarduerarekin denbora luzeagoan aritu. Halakoetan, turismoko eskumenak dituen organoak prozedura bat abiaraziko du, eta, haren baitan, titularrak nahi dituen ebidentziak eta arrazoibideak azaldu eta aurkeztu ahal izango ditu. Eta egindako jarduerak ikusita, bere esku izango du jarduera geldiaraztea, ebazpen arrazoitu bidez ezar litezkeen zehapenei kalterik egin gabe.

4.— Gorabehera horien berri jasotzen duen administrazio-ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesduna behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea.

5.— Era berean, aitortutako datuetan aldaketarik egin nahi badute, turismo-enpresek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute aldez aurretik.

6.— Beste autonomia-erkidego batean legez kokatuta dauden enpresek askatasuna izango dute Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu eta beren zerbitzuak emateko, nahiz eta turismo-ostatuko enpresek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko duten jarduera gauzatu nahi duten establezimendu fisikoari dagozkion betebeharrak betetzeari buruz.

7.— Europar Batasuneko estatu kideetan edo Europako Esparru Ekonomikoaren Itunari atxikitako estatuetan kokatutako turismo-enpresek, aldi baterako eta noizean behin zerbitzuak modu librean ematen dituztenek, askatasuna izango dute beren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan emateko».

Hogeita hemezortzigarren artikulua.– Aldatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Turismo-enpresen betebeharrak» izeneko 9. artikulua 6. paragrafoa, eta honela geratuko da idatzita:

«6.– Erantzukizun zibileko poliza bat kontratatzea, hartzailearen edo hirugarren baten osasunerako, segurtasun fisikorako edo hartzailearen finantza-segurtasunerako arrisku zuzen eta zehatz bat dagoenean; hartzaileak berak bermatuko du poliza hori, erregelamendu bidez erabakitzen den moduan eta zenbatekoan. Eskatutako bermeak estalitako arriskuaren izaeraren eta tamainaren neurrikoa izan beharko du».

Hogeita hemeretzigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita gelditzen da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 10. artikulua «Turismo-enpresen errolda», era honetara:

«1.– Turismo-ostatuko enpresek, bidaia-agentziek eta lege honetako 37. artikuluan zehazturik dauden turismo-enpresa osagarriek eta beren turismo-establezimenduek Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erroldan eman beharko dute izena.

2.– Turismo arloko eskumena duen organoaren menpe egongo da errolda hori, eta administrazio-izaerakoa eta publikoa izango da.

3.– Errolda horren antolaketa eta funtzionamendua erregelamenduz zehaztuko dira».

Berrogeigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita gelditzen da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Klaseak» izeneko 12. artikuluko 2. paragrafoa, era honetara:

«2.– Kanpinak eta kanpatze-turismoko beste mota batzuk, landetxeak, nekazaritza-turismoak, turismo-apartamentuak eta turismo-aterpetxeak dira hotelez kanpoko turismo-establezimenduak. Bestelako ostatu-mota oro ere turismo-ostatu izango da, baldin eta hura baimendu beharra legez ezarrita dauden interes orokorreko arrazoiekin justifikatzen bada».

Berrogeita batgarren artikulua.– Ezabatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 23. artikulua, «Kulturaren, jolasaren edo kirolaren arloko ekitaldietarako aldi baterako kanpaketa-eremuak».

Berrogeita bigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 26. artikulua, «Baldintzak», era honetara:

«Nekazaritza-turismoko establezimenduaren titularrak nekazaritza-ustiategiaren titularra edo titularkidea izan behar du».

Berrogeita hirugarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 27. artikulua, «Kontzeptua», era honetara:

«1.– Prezio baten truke, mantenuarekin edo mantenurik gabe, ostatu-zerbitzuak ematen dituzten landa-inguruneako establezimenduak dira landetxeak, dauden landa-ingurunean ohiko den arkitekturako eraikinetan kokatuak.

2.– Landetxeak, beren instalazioen eta zerbitzuen arabera, erregelamendu bidez zehazten diren kategorietan sailkatu ahal izango dira, hala nahi izanez gero».

Berrogeita laugarren artikulua.– Aldatu egiten dira Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Kontzeptua» izeneko 28 bis artikulua 1 eta 3. paragrafoak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1.– Ostatu-zerbitzua emateko hainbat lagunentzako gelak dituzten establezimenduak dira turismo-aterpetxeak, zerbitzu osagarriak dituztenak eta ez dituztenak.

3.– Erregelamenduz arautuko da aterpetxeek zein baldintza bete behar dituzten, zer-nolako ikur bereizgarriak eduki behar dituzten eta aukeran zer-nolako espezialitateak izango dituzten».

Berrogeita bosgarren artikulua.– 8. atala eta 28 ter artikulua sartzen dira Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen II. tituluko II. kapituluan, eta honela idatzita geratzen dira:

«8. ATALA.

TURISMO-OSTATUEI BURUZKO XEDAPEN KOMUNAK

28 ter artikulua.– Dispentsa-araubidea.

1.– Turismo Administrazioak, izaten diren inguruabarrak beren osotasunean haztatuta, era arrazoituan eta salbuespen gisa, dispentsa eman ahal izango dio establezimendu jakin bati, lege hau garatzeko xedapenetan ezartzen diren gutxienerako betekizun eta baldintzetatik bati edo batzuei dagokienez.

2.– Arkitektura balio berezi egiaztatua duten edo eskualdean edo inguruan ohiko duten arkitekturaren araberakoak diren eraikinetan kokatutako establezimenduen egoerei begiratuko zaie, besteak beste eta era berezian, aginduzko neurriei dagokienez.

3.– Horrelako dispentsak orekatu egin beharko dira beste konpentsazio-faktore batzuk, hala nola beren taldearen edo kategoriaren arabera egokituko litzaiekeen zerbitzu osagarrien edo baldintza gehigarrien eskaintza, egoteari erantzunez, bai eta beren instalazio eta zerbitzuen edo sar ditzakeen hobekuntzen balioespen bateratuari erantzunez ere.

4.– Aipatutako dispentsak, betiere, kasuan kasuko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu baino lehenago lortu beharko dira.

5.– Dispentsa-eskabideak hiru hilabeteko epean ebatzi beharko dira. Epe horretan ebatzen ez badira, eman egin direla ulertuko da».

Berrogeita seigarren artikulua.– Aldatu egiten dira Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Zer diren eta betekizunak» izeneko 29. artikulua 1 eta 2. paragrafoak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1.– Lanbidez eta komertzialki bidaia konbinatuen antolaketa, bitartekotza komertziala edo komertzializazioa egiten dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak dira bidaia-agentziak.

2.– Bidaia-agentziak zein motatakoak izan daitezkeen erregelamenduz zehaztuko da, bakoitzak bete beharreko baldintzekin batera. Batez ere, zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dituzten eta zer-nolako instalaziotan dauden izango da bereizketa-gakoa».

Berrogeita zazpigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 30. artikulua, «Klaseak».

Berrogeita zortzigarren artikulua.– Aldatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Bermea» izeneko 31. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Bidaia-agentziek, bezeroekin itundutako zerbitzuak direla eta, fidantza edo berme nahikoa eratu eta etengabe indarrean eduki beharko dute beren gain hartu dituzten betebeharreari aurre

egiteko. Fidantza administrazio-bideko edo auzibideko erabaki irmoz edo arbitrajeko laudoz betearazi ahal izango da.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako betebeharra ez zaie eskatuko beste autonomia-erkidego batzuetan kokatutako zerbitzu-emaileei Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsalak zabaltzen dituzten kasuetan».

Berrogeita bederatzigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 33. artikulua, «Intrusismoa».

Berrogeita hamargarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen dira Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 34. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«34. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Jantoki-zerbitzua duten establezimendu finkoetan, establezimendu horietan bertan jan eta edateko, janariez eta edariez hornitzen duten entitateak dira jatetxe-enpresak, lanbidez eta ohikotasunez jarduera hori gauzatzen dutenak.

2.– Jatetxe-enpresek lege honetako 9. artikuluan zehazturik datozen obligazioak bete beharko dituzte».

Berrogeita hamaikagarren artikulua.– Aldatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 35. artikulua, «Klaseak», eta honela idatzita geratzen da:

«Jatetxe-establezimenduak, ematen duten jatetxe-zerbitzuaren arabera, bi motatakoak izan daitezke: jatetxeak eta tabernak».

Berrogeita hamabigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 36. artikulua, «Mailak».

Berrogeita hamahirugarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 40. artikulua, 'Zer diren', era honetara:

«Orientazio, informazio, laguntza eta antzeko jardunak ohikotasunez eta ordaindurik egiteari buruzko lanbide izan eta erregelamenduz horrelakotzat zehaztutakoak dira turismo-lanbideak. Kualifikazioen bat eduki beharra eskatzeko aukera ere badago, beste estatu kide batzuetako lanbide-kualifikazioa aitortzeari kalterik egin gabe.

Beste autonomia-erkidego batzuetan kokatutako zerbitzu-emaileek askatasunez gauzatu ahal izango dute beren jarduera, etengabe nahiz aldi baterako, Euskal Autonomia Erkidegoan».

Berrogeita hamalauugarren artikulua.– Aldatu egiten dira Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Arau-hauste larriak» izeneko 66. artikulua a), b), c) eta p) idatz-zatiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«a) Turismo-zerbitzuen publizitatea egitea edo zerbitzu horiek egiazki ematea, aldez aurretik erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe, edo, aldez aurreko adierazpena egin gabe, establezimendu fisikoetan erreformak egitea, erreforma horiek jarduerarako oinarritzko baldintzak aldatzen badituzte eta lehenagotik aitortutako baldintzetan ere eragina badute.

b) Jarduera gauzatzeko edo sailkatzeko ezinbestekoak diren baldintzak bete gabe uztea edo aldatzea, bai eta duen sailkapenaren arabera egokitzen zaizkionaz bestelako izendapen, errotulu edo bereizgarriak erabiltzea ere.

c) Erantzukizunpeko adierazpeneko edozein datutan, adierazpenetan edo agiritan jarduerarako funtsezkoa den zer edo zer zehatza ez izatea, faltsua izatea edo falta izatea.

p) Turismo arloko arauetan eskatzen diren aseguru-bermeak eta fidantzak egunean ez edukitzea».

Berrogeita hamabosgarren artikulua.– Ezabatu egiten dira Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Zigor-motak» izeneko 71. artikulua 2. paragrafoko c) idatz-zatia eta 3. paragrafoa.

Berrogeita hamaseigarren artikulua.– Aldatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen «Zigor osagarriak» izeneko 74. artikulua 2. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Hutsegite oso larria errepikatu egiten bada eta arau-haustek Euskadiko turismo arloko interesak larriki kaltetu baditu, bidezko izango da establezimendua ixtea eta bi eta bost urte bitartean edo aurrerantzean inoiz ere arlo honetan berriro jarduten ez uztea».

Berrogeita hamazazpigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen lehenengo xedapen gehigarria.

Berrogeita hemezortzigarren artikulua.– Sortu egiten da Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen lehenengo xedapen gehigarri berria, eta honela idatzita geratzen da:

«Lehenengoa.– Lege honen gaztelaniazko bertsioan, 'usuarios turísticos' aipatzen direnean, 'personas usuarias turísticas' direla ulertuko da».

Berrogeita hemeretzigarren artikulua.– Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legeari zazpigarren xedapen gehigarria eransten zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«Zazpigarrena.– Lege honetan aipatzen denean, jarduera hasi baino lehen Turismo Administrazioaren baimena edo aitortpena lortu beharra dagoela, bada, aurrerantzean, horren ordez, honako hau ulertuko da: interesdunak, jarduerari hasiera eman baino lehen, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko duela».

Hirurogeigarren artikulua.– Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legeari zortzigarren xedapen gehigarria eransten zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«Zortzigarrena.– Baldin eta, lege honekin bat etorrita, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar bada eta, orobat, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (testu hori urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), edo hura garatzeko autonomia-arautegiaren arabera, erantzukizunpeko adierazpena ezin izango da aurkeztu harik eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin arte, eta derrigorrezkoa izango da, beti, hala egin dela egiaztatzen dituzten agiriak edukitzea».

Hirurogeita batgarren artikulua.– Bederatzigarren xedapen gehigarria eransten zaio Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legeari, testu honekin:

«Bederatzigarrena.– Baimendurik eta sailkaturik dauden jatetxe-enpresek 2012ko abenduaren 31 baino lehen jaso beharko dituzte beren kategoriari dagozkion plakak eta bereizgarriak».

VII. KAPITULUA

MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZA ANTOLATZEKO MAIATZAREN 7KO 5/2004 LEGEA
ALDATZEA

Hirurogeita bigarren artikulua.– Aldatu egiten da Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen 14. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«14. artikulua.– Gai orokorrak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean bakar-bakarrik instalazio hauetan egin ahal izango da ardoa: nahitaez eta funtzionatzen hasi aurretik, erantzukizunpeko adierazpena nekazaritzako elikagaien industriaren arloan eskuduna den sailean aurkeztu duten instalazioetan, instalazio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatze aldera.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak ez du salbuesten beharrezkoak diren beste erregistroetan inskripzioa egin behar izatetik.

3.– Nekazaritzako elikagaien industriaren arloan eskuduna den sailak, beste erakunde publiko zein pribatuekin elkarlanean, ardogintzaren arloko ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-programak garatuko ditu».

Hirurogeita hirugarren artikulua.– Aldatu egiten da Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen «Praktika eta tratamendu enologikoak» izeneko 15. artikuluko 5. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«5.– Ardoa egin duten pertsona fisiko edo juridikoek eta pertsona horiek osatutako taldeek obligazioa daukate ardoa egiteki sortutako azpiproduktuak desegiteko. Horretarako, baimendutako distilazio-enpresa bati eman ahalko zaizkio ardoa sortzearen azpiproduktuak, distilaziorako erabil ditzan, edo kendu ahalko dira azpiproduktu horiek, kontrolak betez, erregelamenduz ezarritako moduan.

Nolanahi ere, ardogintzako kanpaina batean, aurreko lerrokadan aipatutako pertsonak ez badute 25 hektolitro ardo edo muztio baino gehiago ekoitzi beren instalazioetan, ez dute ardoa egitearen azpiproduktuak desegiteko obligaziorik izango».

Hirurogeita laugarren artikulua.– Aldatu egiten da Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen «Aitorpena» izeneko 30. artikuluko 2. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Aitorpena eman aurretik, proposatutako produktuaren kalitatearen eta trazabilitatearen berme-sistemaren kontrola egingo da. Hau da, aginduzko txosten bat egingo da eskabideari erantsi beharreko agirien edukien gaineko adostasuna sendesteko (agiriok aurreko artikuluan aipatu dira), eta proposatutako kontrol-sistema egokia eta nahikoa dela bermatzeko.

Eusko Jaurlaritzan nekazaritza-gaietan eskumena daukan sailak homologatuko ditu aipatutako txostena egiteko beren burua eskaintzen duten erakundeak, eskabidea egin eta baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) Nortasun juridiko propioa izan eta zuzenbide pribatuaren mende egotea.

b) Bere zereginak bete ahal izateko nahiko baliabide edukitzea beti, bai langile kualifikatuen aldetik eta bai administrazio-azpiegituraren aldetik.

c) Nekazaritzako elikagaien kalitate-kontrolak egiten gutxienez bost urteko eskarmentua daukala egiaztatzea, baita aldi horretan erakundeak bere egitura juridikoa aldatu badu ere, baldin eta aldi horretako benetako eskarmentua zuzenbidean onartutako edozein bide erabilia egiaztatzeko modukoa bada.

d) Entidad Nacional de Acreditación (Enac) delakoaren egiaztatzea, hala agintzen baitute UNE-EN ISO/IEC 17020:2004 eta UNE-EN 45011 arauak, edo horien ordezkari arauak.

e) Ondo bermatzea erakundearekin harremanen bat izango duten guztiek, pertsona fisiko nahiz juridikoa izan, bermatuta izango dutela harreman hori nahi duten hizkuntza ofizialean izateko eskubidea.

Kalitateko ardo aitortzea eskuratzeko eskabidea egin duenak berak aukeratuko du aginduzko txostena egiteko egoki irizitako erakundea, homologazioa lortu duten erakundeen artean.

Hirurogeita bosgarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen «Arau-hauste arinak» izeneko 50. artikuluko 1. paragrafoa, era honetara:

«1.– Ardoa egiteko sortutako azpi produktuak kentzeko obligazioa ez betetzea».

Hirurogeita seigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen 51. artikuluko 1. paragrafoa.

Hirurogeita zazpigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen «Arau-hauste arinak» izeneko 54. artikuluko 1. paragrafoa, era honetara:

«1.– Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean ardoa egitea dagokion jarduera-jakinarazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Erregistroari egin gabe izatea, organo eskudunaren errekerimendurik ez badago».

Hirurogeita zortzigarren artikulua.– Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen «Arau-hauste larriak» izeneko 55. artikuluari 10. paragrafoa gehitzen zaio, honela idatzita:

«10.– Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean ardoa egitea dagokion jarduera-jakinarazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Erregistroari egin gabe izatea, erregularizatzeko aurretiaz egindako errekerimendua saihestu bada».

Hirurogeita bederatzigarren artikulua.– Indargabetuta geratzen da Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen «Arau-hauste oso larriak» izeneko 56. artikuluko 1. paragrafoa.

Hirurogeita hamargarren artikulua.– Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legeari hirugarren xedapen gehigarria erantsen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«Hirugarrena.– Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legeak bere artikuluetan Nekazaritza eta Arrantza Saila aipatzen duen guztietan, nekazaritza-gaietan eskumena duen saila ulertu behar da».

VIII. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUGIROA BABESTEN DUEN OTSAILAREN 27KO
3/1998 LEGE OROKORRA ALDATZEA

Hirurogeita hamaikagarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren «Ingurugiro-eraginaren banakako ebaluazioa» izeneko 47. artikulua 3. paragrafoa, era honetara:

«3.– Jarduerak lege honetako II. eranskineko A atalean aipatzen direnetakoak badira, eta, halaber, ingurumenaren gaineko inpaktuaren banakako ebaluazioaren menpe badaude, ebaluazio horrek ordeztuko du, ondorio guztietarako, lege honen 59. artikulua adierazitako neurri zuzentzaileak ezartzeko tramitea».

Hirurogeita hamabigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 55. artikulua, «Aplikazio-esparrua», era honetara:

«1.– Ingurumenari, pertsoneri edo haien ondasunei kalte eragiteko arriskua daukaten jarduera eta instalazio publikoek zein pribatuak edo kalte horiek eragiteko arriskua ekar dezaketenek 'sailkatuak' izen generikoa hartuko dute aurrerantzean.

2.– Jarduera eta instalazio horiek ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan zenbateko eragina izan dezaketean kontuan hartuta, lizentzia administratiboan edo aurrekomunikazioaren araubidea bete beharko dute ezinbestean, ondorengo artikuluetan azaldu bezala, funtzionatzen jarri, handitu edo zaharberritu aurretik.

3.– Lege honen II. eranskinean dator jasota zein jarduera edo instalazio egongo diren lizentzia administratiboan edo aldeztu aurretik komunikatu beharra eskatzen duen araubidearen menpe, jarduera eta instalazio horiek daukaten eragina handia edo txikia den kontuan hartuta. Hori kalkulatzeko honakoak hartuko dira kontuan:

- a) Instalazioaren tamaina eta ekoizpen-ahalmena.
- b) Zenbat ur, energia eta bestelako baliabide kontsumitzen den.
- c) Zenbat hondakin sortzen dituen, eta zer pisu eta tipologiakoak diren.
- d) Atmosferara eta uretara isurtzeko zenbateko arriskua daukan.
- e) Istripuak izateko arriskua zenbatekoa den.
- f) Substantzia arriskutsurik erabiltzen duten.

4.– Baldin eta jarduera edo instalazio batek Administrazioaren esku-hartzearen araubideetako bakoitza bete behar duten jarduera edo instalazioak baditu, halakoetan, jarduera edo instalazio osoak bete beharko du dena delako lizentzia-araubidea».

Hirurogeita hamahirugarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 56. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«56. artikulua.– Eskumenak eta izena.

1.– Jarduera sailkatu bat ezarri eta handitu nahiz aldatzeari buruz esku-hartzeko eskumena jarduera kokatzekoa den lekuko udalak dauka.

2.– Udal-lizentziari jarduera sailkatuetarako lizentzia esango zaio, eta formalizatzeko, ondorengo artikuluetan eta legea garatzeko emango diren arauetan zehaztutakoa bete beharko da.

3.– Komunikazioari jarduera sailkatuari buruzko aurrekomunikazioa esango zaio, eta formalizatzeko, lege honetan eta legea garatzeko emango diren arauetan zehaztutakoa bete beharko da».

Hirurogeita hamalagarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrari 59 bis artikulua gehitzen zaio, honela idatzita:

«59 bis artikulua.– Jarduera sailkatuetarako lizentzia ematea, aldatzea eta ezeztatzea.

1.– Neurri zuzentzaileei buruzko txostena jaso ondoren, udalak sei hilabeteko epea izango du, hasierako eskabidea jaso zuenetik, jarduera sailkatuetarako lizentzia emateko, egoki baderitzo.

2.– Lizentziak inongo indarrrik gabe geratuko dira baldin eta ezinbestean betetzekoak zituzten baldintzak ez badituzte betetzen.

3.– Lizentziak ofizioz alda daitezke sektoreko araudia aldatu eta berria indarrean jartzen bada edo ikusten bada jarduerari ezarri zaizkion neurri zuzentzaileak ez direla nahikoak ingurumenari, pertsoneri edo haien ondasunei eragin diezaieketen kaltearen aldean. Baimena aldatzeak ez du eragingo kalte-ordainak jasotzeko inongo eskubiderik.

4.– Lizentziak ezeztatu egingo dira baldin eta hasieran lizentzia ez ematea justifikatuko lukeen gorabeheraren bat badela jakiten bada, Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko egintza administratiboak berrikusteko prozedurek hala aurreikusten baitute».

Hirurogeita hamabosgarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 61. artikulua izenburua eta edukia, era honetara:

«61. artikulua.– Jarduera sailkatuetarako lizentziaren eta gainerako hirigintza-lizentzien arteko lotura.

1.– Udalek ezin izango dute obra-lizentziarik eman jarduera sailkatuetarako lizentziaren menpe dauden jardueretarako harik eta jarduera-lizentzia eman arte.

2.– Jarduera sailkatuetarako lizentzian agindutako neurri zuzentzaileak ezarrita daudenean eta instalazioak egokituta daudenean, jarduerari ekin ahal izateko, aurrekomunikazioaren araubidea bete beharko da.

3.– Komunikazioarekin batera, teknikari gaituak emandako ziurtagiria ere aurkeztu behar da, egiaztatzeko jarduerak edota instalazioak bat datozela aurkeztutako eraikitze-proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin, eta ezarri zaizkion neurri zuzentzaileak bete dituela.

4.– Komunikazioa eginda dagoela, komunikazioa egin den egunetik bertatik has daiteke gauzatzen jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera».

Hirurogeita hamaseigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrari 62 bis artikulua gehitzen zaio, honela idatzita:

«62 bis artikulua.– Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa.

1.– Aurretiazko komunikazioaren araubidea bete behar duten jarduera sailkatuak sustatzen dituztenek aukera izango dute lege honetako 57.1 artikulua aipatzen duen kontsulta udalean egiteko.

2.– Jarduera-sustatzailearen komunikazioa dagokion udalean formalizatu behar da, instalazioak hasteko prest daudenean; nolahi, sektoreko lizentzia edo baimenak ere beharrezkoak baldin bada hasteko, ordurako eskuratuta eduki beharko ditu.

Instalazioa prestatzeko beharrezkoa baldin bada obrak egitea, dagokion hirigintza-lizentzia eskuratu ondoren egin beharko dira obra horiek.

3.– Komunikazioarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Memoria bat: jarduera deskribatu behar du eta jarduera horrek ingurumenen, pertsonengan edo haien ondasunetan eragin ditzakeen kalteak gutxitzeko ezarri diren neurriak azaldu.

– Eskumena daukan teknikariak emandako ziurtagiria, egiaztatzeko jarduera edota instalazioak bat datozela aurkeztutako proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin, eta ondo betetzen dituztela ingurumenarekiko betebeharrak guztiak, baita, bete beharrekoak bada, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotakoak ere.

4.– Komunikazioa eginda dagoela, komunikazioa aurkeztu den egunetik bertatik has daiteke gauzatzen jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administrazio Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.– Jarduera hastea jardueraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean egingo da, erabat; halere, jarduerak hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da sektorean aplikatzeko den araudiaren arabera baimena edukitzeko beharrezko diren titulu administrazioak aurretik eskuratzea edo egin beharreko kontrolak aurretik eginda edukitzea.

6.– Baldin eta lege honen II. eranskineko B atalean jasota dauden jardueretako batek, funtzionatzen hasten denean, gainditu egiten badu aipatutako atal horretan jarduera horretarako ezarritako edozein muga, aurrerantzean, jarduera sailkatuaren lizentziaren araubidea ezarriko zaio jarduera horri».

Hirurogeita hamazazpigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikulua, «Ikuskapen eta kontrola», era honetara:

«1.– Udalei dagokie jarduera sailkatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko eskumena. Tokian tokiko alkateak ahalmena du legez kanpoko jarduerak bertan behera utzi edo ixteko, lizentziak deuseztatzeko eta legez finkatuta dauden zehapenak ezartzeko.

2.– Jardueraren funtzionamenduak akatsak dituela ikusiz gero, akats horiek konpontzeko eskatuko dio alkateak titularrari. Akats horiek konpontzeko epea, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, ez da inoiz izango sei hilabetekoa baino luzeagoa.

3.– Ingurumenari kalte larriak edo konponezinak eragiteko hur-hurreko mehatxua baldin badago edo pertsonak edo haien ondasunek berehalako arriskua badaukate, horri aurrea hartzeko, alkateak ahalmena dauka zenbait neurri har daitezela agintzeko, baita jarduera erabat edo zati batean bertan behera uzteko ere, harik eta mehatxua edo arriskua eragiten duten gorabeherak erabat desagertu arte.

2012ko apirilaren 30a, astelehena

4.– Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, jardueraren bateko titularrak uko egiten badio ezarri zaion neurriren bat betetzeari, ekintza errekeritu dion agintariak, ohartarazpena egin eta gero, modu subsidiarioan egikaritu ahal izango du. Eragindako kostuak bere gain hartuko ditu titularrak, eta kostu horiek premiamendu-bidea erabilita eskatu ahal izango zaizkio».

Hirurogeita hemezortzigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65. artikulua izenburua eta hasierako lerrokada, era honetara:

«65. artikulua.– Lizentziarik edo aurretiazko komunikaziorik gabeko jarduerak.

Egokitzen diren zehapenak zehapen, alkateak jakiten badu jarduera bat funtzionamenduan dagoela horretarako beharrezko lizentziak eskuratu gabe edo dagokion aurretiazko komunikazioa egin gabe, honako neurriak hartuko ditu:».

Hirurogeita hemeretzigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren «Oso arau-hauste larriak» izeneko 109. artikulua a) idatz-zatia, era honetara:

«a) Obra, proiektu eta jarduerak hasia edo gauzatzea aurretik lizentzia, baimena edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ez bada eskuratu, edo kasuan kasuko aurretiazko komunikazioa egin gabe badago, edo ez badira betetzen baimenetan nahiz ingurumen-lizentzietan edo ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako baldintzak, edo aurretiazko komunikazioan jakinarazitakoak».

Laurogeigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren «Oso arau-hauste larriak» izeneko 109. artikulua c) idatz-zatia, era honetara:

«c) Jarduera sailkatuen aurretiazko komunikazioari, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari eta era guztietako ingurumen-baimen eta –lizentziak emateari erantzen zaion edo haiekin batera aurkezten den dokumentazioan exijitutako datuak ezkutatzea edo faltsutzea».

Laurogeita batgarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrari hirugarren xedapen gehigarria erantzen zaio, honela idatzita:

«Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen artikuluetan 'jarduera-lizentzia' aipatzen denean, 'jarduera sailkatuaren lizentzia' ulertu behar da».

Laurogeita bigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren azken xedapenetako bigarrena, era honetara:

«Gobernu Kontseiluari baimena ematen zaio lege hau betetzeko behar diren aplikazio- eta garapen-xedapenak agintzeko, eta, zehazki, III. tituluko II eta III. kapituluetakoa edukiari buruz 39. artikuluan xedatutakoa burutzeko. Gobernu Kontseiluak ahalmena dauka Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen eranskinetan jasota dauden jarduerak, proiektuak, planak eta programak aldatzeko, dekretu bidez».

Laurogeita hirugarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren II. eranskinaren izenburua eta edukia, era honetara:

«II. eranskina. Jarduera eta instalazio sailkatuen zerrenda

A) Jarduera-lizentzia behar duten jarduera eta instalazio sailkatuak.

1.– Erauzketa-jarduerak.

2.– Instalazio nuklearrak eta erradiaktiboak.

3.– 100 kW-etik gorako potentzia instalatua duten argindarra ekoizteko instalazioak.

4.– Industriak, oro har.

5.– Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak; bai eta motordun ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak eta antzeko lanak egiten dituzten tailerrak ere.

6.– Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.

7.– Biltegitzeko, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak eta instalazioak, toxiko, arriskutsu edougarri gisa katalogatuta dauden produktu eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegirako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, gainerako lurzoruetan).

8.– Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak, eta erregai likidoak edota gaseosoak banatzeko instalazioak edo antzeko instalazioak.

9.– Edozein motatako lurzoruan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik gora badute.

10.– Hondakinak bildu, berreskuratu eta deuseztatzeko instalazioak.

11.– 500.000 m³ baino gehiagoko lekua daukaten lur eta harkaitzen betelanak, urtebete baino gehiago iraungo badute; azpiegitura linealetarako obrei lotutakoak izan ezik.

12.– Hondakin-urak arazteko instalazioak eta edateko ura tratatzeko instalazioak.

13.– Arrain-haztegiak.

14.– Abere-hiltegiak.

15.– Dantza-sala, dantzaleku, klub, diskoteka, disko-bar, karaoke, pub edo antzeko establezimenduak.

16.– Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

– 300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea.

– Lau ohmeko karga estandarrerako 50 wattetik gorako potentzia efikaza duen musika-ekipoa izatea.

17.– 20 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiagoko abeltzaintzako ustiategiak eta etxeo eskortak, edo ustiategi baliokideak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 3. artikuluko a) idatz-zatian agertzen diren proportzioen arabera, edo horren ordeztarako den araudiaren arabera;

txakur-zaindegiak (hazkuntza eta hezkuntza), 25 txakur baino gehiago hartzeko lekua badute; denak ere, baldin eta lurzoru ez urbanizagarrian edo industriarako hiri-lurzoruan badaude.

18.– Etxeko abeltzaintza-jarduerak, alegia, 4 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiago dituzten instalazioak, eta txakur-zaindegiak, den-denak, bizitegirako hiri-lurzoruan baldin badaude.

19.– Errauste-labeak.

20.– Lege honen 55. artikulua xedatzen duenaren arabera, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduerak.

B) Jardueraren aurrekomunikazioa behar duten jarduera eta instalazio sailkatuak.

1.– Argindarra ekoizteko instalazioak edo energia berriztagarriak argindar bihurtzeko hartze- eta eraldatze-instalazioak, potentzia instalatua 50 kW-etik gorakoa eta 100 kW-ekoa edo baxuagoa baldin badute.

2.– Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa edota elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW baino txikiagoa bada eta ekoizpenerako azalera ez bada 300 m²-tik gorakoa; hortik kanpo geratzen dira gainazalaren tratamendua, bernizatze-lana, pistola bidezko pintatze-lana edo halakoak egiten dituzten tailerrak, eranskin honetako A) atalean baitaude sartuta.

3.– A eranskinetako 7. puntuan sartzen ez diren biltegiratze-, salerosketa- eta erakusketa-jarduerak eta -instalazioak.

4.– Erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik beherako edukia dutenak; sailkapen honetatik kanpo utzita gasolindegia batean, hornitegi-parke batean, banatze-instalazio batean edo horren pareko instalazio batean daudenak.

5.– Ibilgailuak zaintzeko lekuak.

6.– Zenbait zerbitzu-jarduera: haurtzaindegiak, ikastetxeak, osasun-zentroak eta botikak, albaitaritza-klinikak, polizia-etxeak eta segurtasun-zentroak, bulegoak, ile-apaindegiak, masaje-etxeak eta hiltegi-zerbitzuak.

7.– Hotelak eta erresidentzia komunitarioak, edadetuen egoitzak, ostatuak eta halako etxeak.

8.– Jarduera sailkatuetarako aurretiazko lizentziaren menpe ez dauden ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak eta jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak ematen dituztenak.

9.– Eranskin honetako A) atalean sartu gabe dauden abeltzaintza-ustiategi txikiak eta etxeko eskortak.

10.– Eraldaketa-zentroak.

11.– Informazioa tratatu eta komunikatzeko zentroak (kalkulu-zentroak, datu-bankuak, irradi-errepikagailuak eta telebista-errepikagailuak, satellite bidezko errepikagailuak, telefonia mugikorreko antenak eta oinarri-estazioak, irradi-telefonoko estazioak eta estazio irradi-telegrafokoak, irradi-igorgailuak, telebista-igorgailuak eta alarmak kontrolatzeko zentralak) eta antzekoak.

12.– Instalazio osagarriak:

12.1.– Galdara-gelak.

12.2.– Airea girotzeko instalazioak.

12.3.– Kamera hozkailuen instalazioak.

12.4.– Erradio-diagnosimedikoa egiteko instalazioak; alegia, aplikatzeko adenerregelamenduaren arabera, diagnosi medikoak egiteko helburua daukaten X izpien ekipoak eta instalazioak.

13.– Errauste-laberik gabeko hilerri eta tanatorioak.

14.– Lege honen 55. artikulua xedatzen duenaren arabera, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduerak».

IX. KAPITULUA

TITULUDUN LANBIDEEI ETA PROFESIONALEN ELKARGO ETA KONTSEILUEI BURUZKO AZAROAREN 21EKO 18/1997 LEGEA ALDATZEA

Laurogeita laugarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Kontzeptua eta sailkapena» izeneko 2. artikuluko 3. paragrafoa, era honetara:

«3.– Dagokion legean hala direla zehazturik daudenak dira lanbide tituludun eta elkargodunak».

Laurogeita bosgarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Bateraezintasunak» izeneko 6. artikuluko 2. paragrafoa, era honetara:

«2.– Profesionalen kontseiluek edo, bestela, elkargoek, beren kideek bete beharreko beste bateraezintasun batzuk ezar ditzakete estatutuetan, kasuan kasuko lanbidearen inguruan, arlo horretako legedi bereziak xedatzen duenaren arabera».

Laurogeita seigarren artikulua.– Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Bateraezintasunak» izeneko 6. artikuluari 5. paragrafoa gehitzen zaio, honela idatzita:

«5.– Edonola ere, lanbide bat bera bakar-bakarrik egitera behartzen duten baldintzak edo lanbide bi edo gehiago aldi berean egitekotan neurriak jartzen dituzten baldintzak, eta kolegiatutako lanbideetan merkataritza-komunikazioei aplikatzen zaizkien murrizketak soil-soilik legeak ezartzen dituen horietan izan daitezke. Elkargoek aukera daukate berek arautzeko beren kideei zein baldintza exijitu merkataritza-komunikazioei dagokienez; baldintzok, betiere, legearen barruan egon behar dute».

Laurogeita zazpigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Kontratatzeko askatasuna» izeneko 7. artikuluko 2. paragrafoa, era honetara:

«2.– Gaiagatik edo fundamentuzko beste arrazoi objektibo batzuk direla medio, elkargoaren arauak exijitzen badute jardunak eskusiboa izan behar duela, edota interes-gatazka sortzen denean, arauak berek finkatuko dute profesionalak ordezkatzeko baldintzak zein izango diren, betiere, kontratatzaileek kontsumitzaile eta erabiltzaile modura dituzten eskubide eta bermeetatik ezer kendu gabe».

Laurogeita zortzigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Profesionalen arau-haustek» izeneko 15. artikuluko 2. paragrafoaren g) idatz-zatia, era honetara:

«g) Lehia desleiala diren egintzak, Lehiaren Zuzenbidea eta lehia desleialaren inguruan indarrean dagoen legediaren arabera».

Laurogeita bederatzigarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 22. artikulua, «Helburua», era honetara:

«Profesionalen elkargoek nortasun juridiko propioa eta jarduteko ahalmen osoa daukate. Helburu izango dute erakunde modura lanbidearen ordezkaritza bakarra izatea, elkargokideen interes profesionalak defendatzea eta elkargokideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesak defendatzea; eta hori guztia gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda».

Laurogeita hamargarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 23. artikulua, «Lanbidea elkargo batean antolatzea», era honetara:

«Lege hau indarrean sartzen denean oraindik elkargorik ez daukaten lanbideei aukera emango zaie elkargoan biltzeko, baina soil-soilik lanbide horretan jarduteko unibertsitate-mailako titulua behar baldin bada eta interes publikoko arrazoirik badago».

Laurogeita hamaikagarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen dira Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Berezko eginkizunak» izeneko 24. artikuluko e), i), n) eta ñ), era honetara:

«e) Irizpide orientatiboak prestatzea, kostak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostak tasatu ahal izateko.

i) Lanbide teknikoei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onestea, bezeroek, eta horien barruan herri-administrazioek herri-administrazio gisa jarduten badute, halaxe eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean. Ikus-onespenaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Ikus-onespenak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz, baina ez ditu inola ere agertuko ez zerbitzu-sariak ez eta kontratuaren baldintzak ere, bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko baitira. Ikus-onespenak ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboan kontrol teknikoa.

Elkargoaren ikus-onespena ezinbestekoa den kasuetan, ikus-onespenaren kosteak modu onekoa izan behar du, ez gehiegizkoa eta ez diskriminatzailea ere. Elkargoek publizitatea egin behar diote ikus-onespenaren kostuari, eta bide telematikoaren bidez izapidetu ahal izango da.

n) Urteko memoria egitea, eta elkargo profesionalaren web-orrian argitaratzea.

ñ) Profesionalen elkargoa erabiltzen dutenentzat eta elkargoko zerbitzuak kontsumitzen dituztenentzat arreta-zerbitzua sortzea, kexak eta erreklamazioak ordenagailu bidez bertaraino joan beharrik gabe aurkezteko aukera ere eman behar duena».

Laurogeita hamabigarren artikulua.– Aldatu egiten da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Berezko eginkizunak» izeneko 24. artikulua f) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da.

«f) Ordainak, soldatak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan, eta zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizialetan txostenak ematea».

Laurogeita hamahirugarren artikulua.– Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Berezko eginkizunak» izeneko 24. artikulua o) eta p) idatz-zatiak gehitzen zaizkio, eta honela idatzita geratzen dira:

«o) Lanbiderako mesedegarriak diren eta elkargoaren helburuak betetzera bideratuta dauden beste eginkizun guztiak. Eginkizun horien artean egongo da elkargoko kideei buruz eta kideei ezarri zaizkien zehapen irmoei buruz egiten diren informazio-eskaerak aintzat hartzea, eta orobat Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 27.4 artikulua jarraiki Europar Batasuneko edozein estatutako agintari eskudunak egiten dituen ikuskaritza– edo ikerketa-eskaerak arretaz hartzea, batez ere informazio-eskaerak eta kontrol–, ikuskapen– edota ikerketa-eskaerak behar bezala arrazoituta egoteari dagokionez eta hortik ateratako informazioa soil-soilik eskaeraren helbururako erabiltzeari dagokionez.

p) Indarrean dagoen legeriak agindutako beste edozein eginkizun, bai eta haien elkargokideen zerbitzuak jasotzen dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileei behar besteko babesa eman ahal izateko beharrezko jotzen diren eginkizun guztiak ere».

Laurogeita hamalagarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen dira Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Sorrera» izeneko 29. artikuluko 1. paragrafoa, era honetara:

«1.– Artikulu honetako 3. paragrafoan jasota dagoen kasuan izan ezik, profesionalen elkargoak sortzeko, beharrezkoa izango da Eusko Legebiltzarraren lege bat, arlo jakin bakoitzeko profesional interesatuek –behar besteko eta behar bezala egiaztatutako ordezkartzaren bidez– hala eskatu dutelako emana, baldin eta, dena delako lanbidean jarduteko, hurrengo artikulua araberako elkargoan egotea derrigorrezkoa bada».

Laurogeita hamabosgarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Elkargoko kide izatea» izeneko 30. artikuluko 1. paragrafoa, era honetara:

«1.– Lanbide elkargodunetan aritzeko ezinbesteko baldintza izango da lanbide bakoitzari dagokion elkargoan sartzea, betiere egokitzen zaion legean hala ezarrita badago».

Laurogeita hamaseigarren artikulua.– Aldatu egiten da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Kolejiatu-motak» izeneko 38. artikuluko 2. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Elkargokideek eskubidea izango dute beren hasierako elkargoa ez den beste elkargo baten eremuan jarduteko, baldin eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, xede-elkargoak ezarritako arau orokorrak eta espezifikoak errespetatzen badituzte. Ezingo dute gaikuntza eman dien elkargoko organoetan eskubide osoko kide gisa parte hartu».

Laurogeita hamazazpigarren artikulua.– Aldatu egiten da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Elkargoan sartzea» izeneko 39. artikuluko 1. paragrafoaren bigarren lerrokada, eta honela idatzita geratzen da:

«Lanbidea lurralde-elkargoka antolatzen denean, haietako batean sartzea aski izango da, hau da, lanbide-egoitza bakar edo nagusia dagoen lurraldekoan. Europar Batasuneko beste estatu batetik aldi baterako etorritako profesionalen kasuan, Erkidegoko Zuzenbidea aplikatuta indarrean dagoen kualifikazioen aitortzari buruzko araudiari jarraituko zaio».

Laurogeita hemezortzigarren artikulua.– Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Elkargoan sartzea» izeneko 39. artikuluari 4. paragrafoa gehitzen zaio, honako idazkera honekin:

«4.– Elkargoek ezin diete inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik exijitu hasierako elkargoa dagoen lurraldeaz besteko lurralde batean lan egiten duten profesionali, ez eta elkargoko kuotak estaltzen ez dituen zerbitzuen onuradunak izateagatik elkargokideei exijitzen dizkieten ohiko diru-kontraprestazioez bestekoak ordaintzea ere».

Laurogeita hemeretzigarren artikulua.– Aldatu egiten da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen «Lanbidean jarduteko lurralde-esparrua» izeneko 40. artikulua 2. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Europar Batasuneko herrialderen batean modu iraunkorrean kokatuta dagoen profesional orok, lege honen lurralde-eremuan jardun nahi baldin badu, kasuan-kasuan indarrean dauden arau komunitarioak bete beharko ditu. Horrez gain, profesionalak aukera izango dute beren kasa edo beste batzuekin batera jarduteko, jarduera profesional berdinekoekin edo bestelakoekin. Beren kasa edo besteren batekin jardunda ere, sozietate moduan jardun dezakete, betiere legeek baimentzen dituzten sozietateak eratuta».

Ehungarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 50. artikulua, «Baliabideak», era honetara:

«1.– Elkargo eta kontseilu profesional bakoitzak bere jarduera garatzeko beharrezko dituen baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu eskueran. Elkargoek eskainiko dituzte kontseiluetarako giza baliabideak, elkargoetako estatutuek besterik xedatzen ez badute behintzat. Elkargokideek jarritako kexa edo erreklamazioei aurre egiteko bestekoak izan behar dute baliabideek. Horrez gain, kontsumitzaile eta erabiltzailentzako arreta-zerbitzua eduki behar dute profesionalen elkargoek, elkargokideen jarduera profesionala edo kolegiatua dela-eta inork aurkezten dituen kexa eta erreklamazioei erantzuteko. Zerbitzu hori erregulatzean, kontuan hartu beharko da, halaber, kexak eta erreklamazioak mezu elektronikoz eta urrundik aurkezteko aukera.

2.– Elkargo-erakundeek web-orria eduki behar dute profesionalak aukera izan dezaten, Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean aurreikusita dagoen leihatila bakarraren bidez, elkargoko kide egiteko, lanbide-jardueran aritzeko eta baja emateko egin beharreko izapide guztiak egiteko, puntu bakar batetik, elektronikaren bidez eta urrundik, betiere aipatutako 17/2009 Legearen 18.2 artikulua jarritako baldintzetan.

3.– Elkargo eta kontseilu profesional bakoitzak bere aurrekontua izango du. Aurrekontua gutxi gorabeherakoa izango da, eta urte bakoitzerako aurrez ikusten diren diru-sarrera eta gastu guztiak jasoko ditu.

2012ko apirilaren 30a, astelehena

4.– Profesionalen elkargoak eta kontseiluak auditoria pasatzera derrigortuta daude. Aurrekontuaren ekitaldi bakoitzean egingo zaie auditoria, estatutuetan jarrita daukaten moduan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokion fiskalizazioari kalterik egin gabe, haren lege arautzaileak ezarri bezala».

Ehun eta batgarren artikulua.– Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeari hamargarren xedapen gehigarria eranstean zaio, honako idazkera honekin:

«Hamargarren xedapen gehigarria.– Profesionalen elkargoen gaian eskumena duen saila aipatzea

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluen Jardunari buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak bere artikuluetan Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzako Saila aipatzen duen guztietan, profesionalen elkargoen gaian eskumena duen saila ulertu behar da».

X. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEI BURUZKO EKAINAREN 17KO 12/1994 LEGEA ALDATZEA

Ehun eta bigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen «Ondarezko diru-izendapena» izeneko 9. artikuluko 1. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Ondarezko diru-izendapena edozein eratako ondasun eta eskubideek osa dezakete. Izendapenak nahikoa izan behar du fundazioaren helburuak betetzeko, eta fundazioa diruz bideragarria izango dela ziurtatuko du. Diru-izendapena nahikotzat joko da ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen balio ekonomikoa 30.000 eurokoa bada. Ekarpeneren balioa kopuru horretatik beherakoa bada, fundazioa eratu duen pertsona fisiko edo juridikoak, eratzeko eskrituran bertan, lehenengo jardun-programa jarri beharko du, bai eta profesional independente batek prestatutako ikerlan ekonomikoa ere, fundazioa diruz bideragarria dela bermatzen duena».

Ehun eta hirugarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen «Ahalmenak» izeneko 11. artikuluko 3. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Pertsona juridikoek pertsona fisiko bat izan behar dute gobernu-organon beren ordezkari, baina ordezkari hori ez da erregistroan inskribatuko».

Ehun eta laugarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen «Ahalmenak» izeneko 11. artikuluari 5. paragrafoa eranstean zaio, honako idazkera honekin:

«5.– Gobernu-organoko kideak izendatzeko eta kargutik kentzeko ahalmena pertsona juridikoren batek badauka, patronatuko kidea pertsona juridikoa bera izango da».

Ehun eta bosgarren artikulua.– Bere modu batean idatzita geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12. artikulua, «Onarpena», era honetara:

«1.– Eratze-organoa osatzen duten kideak kargua berariaz onartu eta gero hasiko dira lanean.

Gobernu-organoko kideak pertsona juridikoak badira, nahikoa izango da pertsona horiek kargua onartzea; halere, obligazioa izango dute karguaren zereginak betetzeko beren ordezkari izango

den pertsona fisikoa izendatzeko, eta ez da beharrezkoa izango ordezkari izango den pertsona fisikoak berariaz kargua onartzea.

Pertsona juridikoak bere ordezkari izateko pertsona fisiko bat edo batzuk izendatzen baditu, izendapen horrek berekin dakar pertsona juridikoak gobernu-organoko kide gisa duen kargua onartzen duela, eta onarpen horrek izendapenaren egunetik bertatik izango ditu ondorio juridikoak.

2.– Kargu-onartzea Fundazioen Erregistroan jasoko da, eta era hauetako batean gauzatuko da:

- a) Eratzeko eskritura publikoan bertan edo beste eskritura batean.
- b) Agiri pribatu batean, notarioak legeztatutako sinaduraz.
- c) Aipatutako erregistroko arduradunaren aurrean horretarako aurkeztuta.

3.– Kargu-onartzea patronatuaren aurrean ere gauzatu ahal izango da, eta idazkariak emandako egiaztagiriaren bidez ziurtatuko da; egiaztagiriaren sinadura notarioak legeztatua izango da edo Fundazioen Erregistroko funtzionario batek benetakotzat egiaztatua».

Ehun eta seigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen «Aldatzea» izeneko 31. artikulua 1. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Gobernu-organoak fundazioaren estatutuak aldatzea erabaki dezake, baldin eta fundazioaren helburua errespetatzen bada eta fundatzaileak aldaketa debekatzen ez badu.

Orokorrean, uste izango da gobernu-organoak onartzen duen estatutu-aldaketak errespetatzen duela fundazioaren helburua, eta ez da beharrezkoa izango, erregistroan inskribatu baino lehen, artikuluko honetako 4. paragrafoan aipatzen den babesletzaren onarpena izatea.

Edonola ere, estatutu-aldaketa fundatzaileak jarritako helburuak aldatzean edo ezabatzean badatza, babesletzaren berariazko onarpena eduki beharko da erregistroan inskribatu baino lehen».

Ehun eta zazpigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen «Aldatzea» izeneko 31. artikuluko 4. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«4.– Aldaketa-erabakia, arrazoitua izan beharko duena, eskritura publikoaren bidez formalizatu beharko da; halaber, babesletzari jakinarazi beharko zaio, haren onarpena izan beharko du, hala dagokionean, eta Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da».

Ehun eta zortzigarren artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen «Pertsona juridiko publikoek eratutako fundazioak» izeneko laugarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoko b) idatz-zatia –Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen azken xedapenetako bigarrenaren bidez sartu baitzen laugarren xedapen gehigarria lege honetan–, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Pertsona juridiko publikoek fundazio bat eratzen badute, fundazioa eratzeari edo fundazioan parte hartzeari buruz zabaltzen duten administrazio-espeditentean, memoria bat sartu beharko da, besteak beste behar adina justifikatzeko zer dela-eta uste den hobeto lortuko direla interes orokorreko helburuak fundazio baten bitartez, indarrean dagoen legerian jasotako beste forma juridiko publiko edo pribatu batzuen bitartez baino.

2012ko apirilaren 30a, astelehena

Aipatutako pertsona juridiko publikoek baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatzeko ahalmena duen administrazio-organo eskudunak egiaztatuko du baldintzak betetzen diren ala ez, eta dagokion egiaztageria pertsona horiek eratutako fundazioa inskribatzeko beharrezkoak diren agiriei erantsiko zaie».

XI. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ORDENAZIO FARMAZEUTIKOARI BURUZKO EKAINAREN 17KO 11/1994 LEGEA ALDATZEA

Ehun eta bederatzigarren artikulua.– Ezabatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen «Produktu farmazeutikoen banaketa» izeneko 31. artikulua 3. paragrafoko bigarren lerrokada.

XII. KAPITULUA

GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 12/2008 LEGEA ALDATZEA

Ehun eta hamargarren artikulua.– Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen «Zerbitzu eta zentroak baimentzea eta homologatzea» izeneko 59. artikuluari beste bi paragrafo gehitzen zaizkio, 1 bis eta 1 ter, honela idatzita:

«1 bis.– Gizarte-zerbitzuen horniketan eta prestazioan esku hartu ahal izateko beharrezko den administrazio-baimena eskuratzeko, aseguru-poliza bat hitzartu beharko da aurrena, titularren erantzukizun zibila estalita edukitzeko, lokal, instalazio eta zerbitzuetako baldintza objektiboak direla-eta edo zerbitzuko langileen lana dela-eta zerbitzu-hartzaileei inolako kalterik eragiten bazaie ere.

1 ter.– Eskumena duen administrazioak hiru hilabeteren barruan idatzi eta jakinarazi behar du ebazpena, baimena ematearen aldekoa edo kontrakoa, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Baimena eman edo ukatzeko prozesuan Administrazioak isiltasunaren bidetik jotzen badu, esan nahiko du baimena eman egiten duela».

Ehun eta hamaikagarren artikulua.– Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari hamalagarren xedapen gehigarria eransten zaio, honako idazkera honekin:

«Hamalagarrena.– Gizarte-zerbitzuen horniketarako eta prestaziorako eman beharreko administrazio-baimenak banakakoak izatea establezimendu fisiko bakoitzerako.

Baldin eta gizarte-zerbitzu batzuen horniketarako eta prestaziorako ezinbestekoa bada establezimendu fisiko bat edukitzea azpiegitura egonkor gisa, zerbitzua bertatik benetan emateko, lege honetako 59. artikuluan zehazten diren baimenak banakakoak izango dira establezimendu fisiko bakoitzerako, gizarte-zerbitzuak hartzen dituztenek behar bezalako babesak izango dutela bermatzeko.

Zerbitzua ematen duen enpresa edo pertsona jadanik Espainian kokatuta badago eta legez jarduten bada, ezin izango da eskatu, administrazio-baimena emateari begira, jarduera garatzeko erabiliko den establezimendu fisikoari espezifikoki lotuta ez dauden baldintzak betetzeko».

2012ko apirilaren 30a, astelehena

Ehun eta hamabigarren artikulua.– Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari hamabosgarren xedapen gehigarria eransten zaio, honako idazkera honekin:

«Hamabosgarrena.– Zerbitzuen zirkulazio librea

Gizarte-zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak Europar Batasuneko beste estatu batean kokatuta badaude, aske eman ahal izango dituzte zerbitzu horiek, eta ez dute erregistroan izena eman beharko eta aurretiazko administrazio-baimena lortu gizarte-zerbitzuen horniketan eta prestazioan esku hartu ahal izateko».

XIII. KAPITULUA

FAMILIA BITARTEKARITZAKO OTSAILAREN 8KO 1/2008 LEGEA ALDATZEA

Ehun eta hamahirugarren artikulua.– Aldatu egiten da Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen «Aplikazio-eremua» izeneko 2. artikuluko 1. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Zati batean nahiz osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean gauzatzen diren familia-bitartekaritzako jardueretan aplikatu behar da lege hau, baldin eta jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Bitartekarien Erregistroan inskribaturik dauden bitartekariak garatzen badituzte».

Ehun eta hamalagarren artikulua.– Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen «Aplikazio-eremua» izeneko 2. artikuluari 3. paragrafoa gehitzen zaio, honako idazkera honekin:

«3.– Lege honen aplikazio-eremutik kanpo utzi dira Euskal Autonomia Erkidegoko Bitartekarien Erregistroan inskribaturik ez dauden pertsonak egiten dituzten familia-bitartekaritzako jarduera profesionalak».

Ehun eta hamabosgarren artikulua.– Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen «Familia-bitartekaritzako zerbitzu eta programa publikoak» izeneko 4. artikuluari 4. paragrafoa gehitzen zaio, honako idazkera honekin:

«4.– Familia-bitartekaritzako zerbitzu eta programa publikoen familia-bitartekaritzako jarduerak lege honetan xedatutakoaren arabera egingo dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bitartekarien Erregistroan inskribaturik dauden bitartekariak gauzatuko dituzte».

Ehun eta hamaseigarren artikulua.– Aldatu egiten da Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen «Bitartekariak» izeneko 9. artikuluko 1. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Bitartekari-lanak lege honetan jasota dagoen moduan egiteko, beharrezkoa izango da Bitartekarien Erregistroan inskribaturik egotea. Inskripzio hori egiteko, Zuzenbide, Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia, Gizarte Lan edo Heziketa Sozialeko unibertsitate-titulua edo gradu-titulua aurkeztu beharko da, edo Eusko Jaurlaritzak lege hau erregelamenduz garatu eta prestakuntzako edukiengatik titulu haien pareko izango den titulua, eta, gainera, ezinbestekoa izango da familia-bitartekaritzako prestakuntza espezifikoa, nahikoa eta jarraitua egiaztatzea».

Ehun eta hamazazpigarren artikulua.– Aldatu egiten da Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen «Bitartekarien Erregistroa» izeneko 17. artikuluko 1. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

2012ko apirilaren 30a, astelehena

«1.– Bitartekarien Erregistroa eratzten da, familia-bitartekaritzako arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita».

Ehun eta hemezortzigarren artikulua.– Ezabatu egiten dira Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen «Arau-hauste oso larriak» izeneko 29. artikuluko e) eta p) idatz-zatiak.

XIV. KAPITULUA

LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGEA ALDATZEA

Ehun eta hemeretzigarren artikulua.– Aldatu egiten da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen «Etxeak eta eraikinak aldizka ikuskatzea» izeneko 200. artikulua 3. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Ondorio administratiboei begira, txosten teknikoek eraginkortasuna izan dezaten, beharrezkoa izango da elkargoaren ikus-onetsia eskuratzea, indarrean dauden arauetan hala xedatzen denean, eta txostenen kopia udalean aurkeztea».

Ehun eta hogeigarren artikulua.– Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen «Hirigintzako antolamenduak arautzen dituen jarduerak eta ekintzak kontrolatzeko araubidea» izeneko 206. artikulua 1. paragrafoari d) idatz-zatia eranstean zaio, honako idatzkera honekin:

«d) Aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71 bis artikuluan zehazturik dagoen moduan».

Ehun eta hogeita batgarren artikulua.– Beste modu batean idatzita geratzen da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen «Hirigintzako lizentzia behar duten ekintzak» izeneko 207. artikulua 1. paragrafoko s) idatz-zatia, era honetara:

«s) Establezimendu mota oro irekitzeko, establezimendu horiek industria edo merkataritzakoak, profesionalenak edo elkarteak direla ere, tartean ordena, segurtasun edo osasun publikoaren arloko arrazoirik baldin badago».

Ehun eta hogeita bigarren artikulua.– Aldatu egiten da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen «Hirigintzako lizentzia orok bete beharreko arauak» izeneko 208. artikuluko 1. paragrafoaren a) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Obren oinarritzko proiektuan oinarrituta emango da, baina, hala badagokio, obra horien egikaritze-proiektua ere aurkeztu beharko da aurrerago, indarrean dauden arauetan hala xedatzen denean».

Ehun eta hogeita hirugarren artikulua.– Aldatu egiten da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen «Hirigintzako lizentzia emateko prozedura orokorra» izeneko 210. artikuluko 2. paragrafoaren a) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Dagokion proiektua, eskumena duen teknikariak sinatuta eta, indarrean dauden arauetan hala xedatzen bada, kasuan kasuko elkargo profesionalak ikus-onetsita. Proiektu horren memoriak, ezelan ere, aplikatu beharrekoak diren eta erantzuna ematen dien hirigintza-zehaztapenak adierazi beharko ditu, legearen arabera proiektu teknikoaren beharra duten obrak direnean; beste kasu batzuetan, berriz, egikaritu beharreko obren gutxi gorabeherako aurrekontua zein den adieraziko du».

Ehun eta hogeita laugarren artikulua.– Beste era batean idazten da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 213. artikulua, «Hirigintza-araubidea eta sailkatuta dauden edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eskatzen duten jardueren araubidea uztartzea», era honetara:

«1.– Jarduera sailkatuetarako araubidearen, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren eta lege honetan aurreikusitako hirigintza-lizentzien arteko harremana, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezarritakoak arautuko du.

2.– Lizentziak ematerakoan, bidezkoa bada, honako neurri hauek zehaztuko dira:

a) Lizentzia horien xedea jarduera-baimena behar duten jarduera sailkatuen araubidearen mendeko erabilerak edo jarduerak badira, neurri zuzentzaileak eta neurriok eraginkortasunez hartu, gauzatu eta benetan funtzionamenduan jarri direla egiaztatzeko prozedurak, jarduera sailkatuei buruzko araudiaren arabera egokitzen direnak.

b) Lizentzia horien xedea ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten erabilerak eta jarduerak badira, ingurumen-inpaktua murrizteko, zuzentzeko eta jarraitzeko neurriak, dagokion adierazpenean aurreikusten direnak».

XV. KAPITULUA

ANIMALIAK BABESTEN DITUEN URRIAREN 29KO 6/1993 LEGEA ALDAKETA

Ehun eta hogeita bosgarren artikulua.– Aldatu egiten da Animaliak Babesten dituen urriaren 29ko 6/1993 Legearen 19. artikulua a) idatz-zatia, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Establezimendua edo zentroa kokatuta dagoen lurralde historikoko foru-organoan titularraren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, non adieraziko baitu erregelamenduz ezarritako eskakizunak betetzen dituela, hori egiaztatzen duten dokumentuak badituela eta establezimenduak, haztegiak, zentroak edo instalazioak irauten duen bitartean eskakizun horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela».

Ehun eta hogeita seigarren artikulua.– Aldatu egiten da Animaliak Babesten dituen urriaren 29ko 6/1993 Legearen 20. artikulua c) idatz-zatia, eta honela idatzita geratu da:

«c) Mota horretako establezimenduetan animalia bat zaintzan uzten duen jabeak behar bezala baimenduta utziko du presa-arrazoiengatik animalia biziaren bizitzarako beharrezkoa izan litekeen edozein albatari-ebakuntza, betiere jabeakin harremanetan jartzea ezinezkoa denean».

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Aldi baterako araubidea.

1.– Lege hau indarrean jarri aurretik abian ziren baimen-prozedurak baimen-eskaera aurkeztu zen garaian indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

2.– Aurreko paragrafoko xedapena xedapen, baimen-eskaera egin duenak aukeran izango du, ebazpena eman aurretik, eskaera atzera botatzea eta araudi berria aplikatu diezaiotela eskatzea.

Bigarrena.– Zerbitzuak ematen dituzten pertsona eta enpresa baimendu eta gaituei lege hau aplikatzea.

2012ko apirilaren 30a, astelehena

Lege honen xedapenek, orain arteko administrazio-baimenaren araubidearen ordeztuz, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa ezartzen dute zerbitzu-jardueretan sartu eta aritzeko bidetzat. Xedapen horiek zerbitzuak ematen dituzten pertsona eta enpresa baimenduei eta gaituei aplikatuko zaizkie; horretarako, ulertu behar da emandako baimenak edo gaikuntzak, zuzenean eta besterik gabe, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa ordeztuko dituela.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua, Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean jasotzen den jarduera-lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena, eta indargabetuta geratzen dira, halaber, lege honek agindutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Erregelamendu bidezko gaikuntza.

Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari lege hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapenak emateko, dagozkion eskumenen esparruan.

Bigarrena.– Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 24a.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.